



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

ADINGABEEN BITARTEKARITZA

PENALA

KRIMINOLOGIAKO GRADUA

2021-2022 ikasturtea

Egilea: Mainer Gantxegi Laka

Zuzendaria: Eneko Etxeberria Bereziartua

LABURPENA

Gaur egungo gizartean arazo sozial handiak ditugu eta garai ilunak eta ziurgabeak bizi ditugula nabarmentzen da; kezka horien aurrean askoren irtenbidea sinplea da: segurtasuna eta zigorra ezartzea. Horretarako, Zigor Zuzenbidea da ordena eraikitzeko erabiltzen den tresna eraginkorra, baina badira beste alternatibak ere, hain justu, gizarte justuago eta orekatuagoa bilatuko dugulakoan gaude kartzeletatik urrun.

Horregatik, lan honekin, bitartekaritza penalaren erabileraren defentsa egin nahi dugu, bereziki landuko dugun adingabeen eremuan. Helburu horrekin, hurrengo lerroetan, lehenik eta behin, adingabearen izaera eta arlo penalean dituen eskubideen azterketa egingo dugu, Adingabeen Zigor Zuzenbidearen jatorriari eta honen marko juridikoari erreparatuz.

Ondoren, adin txikikoen zigor prozesuan alternatiba den bitartekaritza penalari erreparatuko diogu, bere erregulazioa eta funtzionamendua aztertuz. Ildo horretan, gure lurralde eremura gerturatuko gara, euskal gizartean tresna honek duen eraginkortasuna aztertuz, horrela Euskal Autonomia Erkidegoan adingabeen bitartekaritza penalaren errealitatea ezagutuz. Azkenik, bukatzeko, bitartekaritza penala indartzeko proposamenak eta ondorioak agertuko ditugu.

Hitz gakoak: adingabeen bitartekaritza penala, justizia leheneratzailea, gazte delinkuentzia, adingabearen interes gorena.

RESUMEN

Por todos son conocidos los grandes problemas sociales que sufrimos en la actualidad y se destaca que vivimos tiempos oscuros e inseguros; la solución de muchos ante estas preocupaciones es simple: seguridad y castigo. Para ello, el Derecho Penal es el instrumento eficaz con el que se construye el orden, pero hay otras alternativas con las que creemos que buscaremos una sociedad más justa y equilibrada lejos de las cárceles.

Por ello, con este trabajo pretendemos hacer una defensa del uso de la mediación penal, especialmente en el ámbito de los menores que vamos a abordar. Con este fin, en las siguientes líneas vamos a realizar, en primer lugar, un análisis de la naturaleza del menor

y de sus derechos en el ámbito penal, atendiendo al origen del Derecho Penal de los Menores y su marco jurídico.

A continuación, nos centraremos en la mediación penal como alternativa al proceso penal de menores, analizando así su regulación y funcionamiento. En este sentido, nos acercaremos a nuestro ámbito territorial, analizando la eficacia de este instrumento en la sociedad vasca, para así conocer la realidad la mediación penal de menores en la Comunidad Autónoma Vasca. Por último, se exponen las propuestas y conclusiones para reforzar la mediación penal.

Palabras clave: mediación penal de menores, justicia restaurativa, delincuencia juvenil, interés superior del menor.

ABSTRACT

In today's society there are great social problems and it is evident that we are living dark and uncertain times; the solution to these concerns for many people is simple: security and punishment. To this end, criminal law is the effective instrument used to build order, but there are other alternatives, and we are confident that we will seek a fairer and more balanced society away from prisons.

That is why, with this work, we want to defend the use of criminal mediation, especially in the area of minors that we are going to deal with. In order to this purpose, the following lines shall first examine the nature of the minor and its rights in the criminal sphere, taking into account the origin of the criminal law of minors and its legal framework.

We shall then look at alternative criminal mediation in juvenile criminal proceedings, examining its regulation and functioning. In this regard, we will approach our territorial area by analyzing the effectiveness of this instrument in Basque society, thus knowing the reality of the criminal mediation of minors in the Autonomous Community of the Basque Country. Finally, we shall present proposals and conclusions to strengthen criminal mediation.

Key words: criminal mediation of minors, restorative justice, juvenile delinquency, the best interests of the child.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	7
2.	ADINGABEAREN JUSTIZIA PENALAREN SORRERA	8
2.1.	Adingabearen figura.....	8
2.1.1.	Giza garapenaren lehen etapak: alderdi biologikoa eta psikologikoa.....	8
2.1.2.	Bidegabetasuna ulertzeko gaitasuna eta autodeterminazioa garatzea.....	11
2.2.	Adingabea eskubidedun subjektu gisa	13
2.2.1.	Adingabearen Zigor Zuzenbidearen jatorria Espainian	13
2.2.2.	Nazio Batuen Erakundearen araudia.....	18
2.2.3.	Europako araudia	26
2.2.4.	Espainiako araudia: aurrekariak.....	38
3.	BITARTEKARITZA PENALA 5/2000 LOn.....	56
3.1.	Kontzeptua: justizia leheneratzailea eta bitartekaritza.....	56
3.2.	Printzipio orokorrak	59
3.3.	Erregulazioa	64
3.3.1.	Bitartekaritza aurre-prozesala	64
3.3.2.	Bitartekaritza prozesala.....	65
3.3.3.	Bitartekaritza post-sententziala.....	66
3.4.	Adingabeen bitartekaritza penalaren prozedura.....	67
3.4.1.	Alderdiak	67

3.4.2. Faseak	71
3.4.3. Akordioa eta exekuzioa	75
4. ADINGABEEN BITARTEKARITZA PENALAREN ERREALITATEA ESPAINIA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	76
4.1. Adingabeen bitartekaritza penala EAEn	77
5. KONKLUSIOAK	Error! Bookmark not defined.
6. BIBLIOGRAFIA	84

LABURDURAK

ATAL: Adingabeen Tutoretza Auzitegiak.

AEPLO: Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Lege Organikoa.

BJLO: Botere Judizialaren Lege Organikoa.

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

EB: Europar Batasuna.

EEGK: Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea.

EK: Espainiako Konstituzioa.

EKOGIZ: NBEko Ekonomia eta Gizarte Kontseilua.

HEH: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.

IVAC-KREI: Instituto Vasco de Criminología – Kriminologiaren Euskal Institutua.

KA: Konstituzio Auzitegia.

KAE: Konstituzio Auzitegiaren Epaia.

KZ: Kode Zibila.

LO: Lege Organikoa.

NBE: Nazio Batuen Erakundea.

XG: Xedapen Gehigarria.

ZK: Zigor Kodea.

ZZ: Zigor Zuzenbidea.

1. SARRERA

Nabaria da azken hamarkadetan Zigor Zuzenbide espainiarrak izan duen gogortze joera, bai helduen arloan eta baita adingabeei dagokienean ere; fenomeno hau argi ikusten da adingabeen aurkako zigor prozesua arautzen duen 5/2000 Lege Organikoak jasandako erreformetan. Lege aldaketa guztiek adingabekoei ezarri beharrezko ardurak gogortzea ekarri dute: adin txikikoak parte hartzen duten delitu esanguratsu bakoitzak zigortzearen bidea indartzea ekarri du.

Lan honen bitartez, adingabeei dagokienez, joera horri aurre egiteko bitartekaritza penalak duen garrantzia eta suposatzen duen alternatiba nabarmendu nahi dugu. Horretarako, lehenik eta behin adingabearen figura bera aztertu beharra daukagu, honek garapenaren fase bakoitzean dituen ezaugarrietara gerturatuaz. Ondoren, adingabeen bide-gabetasuna ulertzeko gaitasuna eta autodeterminazioaren garapen gaitasuna ezagutuko ditugu. Gerturatze honen ondoren, adingabeak zigor prozesuan dituen eskubideen konfigurazioa ezagutuko dugu, horretarako Espainian adingabearen Zigor Zuzenbidearen jatorria eta historian zehar izandako eboluzioa ezagutuaz. Arlo honekin bukatzeko, nazioarte-, Europa- eta Espainia-mailako legedi garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

Gure hurrengo pausua bitartekaritza penalean sakontzea izango da. Justizia leheneratzaile eta bitartekaritzaren arteko bereizketa egitea garrantzitsua den heinean, kontzeptu biak definitu eta zehaztuko ditugu, ondoren bitartekaritzaren printzipio orokorrak deskribatzeko. Espainian AEPLOn eta berau garatzen duen erregelamenduan arautzen da bitartekaritza, zehazki 19 eta 51.4 artikuluetan. Hala ere, guk 18. artikuluari ere erreferentzia egingo diogu, gaiarekin duen loturagatik.

Erregulazioa errepasatu ondoren, prozedura bera aztertuko dugu. Hasteko parte hartzen duten alderdi garrantzitsuenak definituz: bitartekaria, arau-hauslea eta biktima. Jarraitzeko, prozeduran akordiora heltzeko jarraitu beharreko faseak eta beren ezaugarriak azalduko ditugu, azkenik, akordio eta exekuzioarekin bukatzeko.

Hirugarren atalean, EAE eta Espainian adingabeen bitartekaritzaren errealitatea zein den ikertuko dugu eta, horretarako, bi iturri nagusi erabiliko ditugu: “2021eko Estatuko

Fiskaltza Nagusiaren Memoria” eta “Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren inguruko V. Plana (2020-2024).

Azkenik, gure proiektuarekin bukatzeko, lanean zehar ateratako ondorioak eta proposamenak adieraziko ditugu, guztiak ere, bitartekaritza penalaren onurak eta alternatiba gisa erabiltzeko aldekoak.

2. ADINGABEAREN JUSTIZIA PENALAREN SORRERA

2.1. Adingabearen figura

M^a Isabel Sánchez García de Paz-ek (1998) ondo azaltzen duen moduan, psikiatria eta psikologiako azterlanek berebiziko garrantzia dute haurren eta gaztearen egozgarritasuna aztertzeko, baita Adingabeen Zigor Zuzenbiderako ere. Beharrezkoa da arautzen den gaia ezagutzea, izan ere horrek bakarrik emango digu aukera erregulazioaren balorazio kritikoa egiteko eta horri buruzko proposamen politiko kriminalak egiteko. Kasu honetan, psikiatria eta psikologiak giza garapenaren fase ezberdinetan ematen diguten egozgarritasunari buruzko jakintza zientifikora jo behar da.

Prozesu judizialaren eta ezarri beharreko neurrien erabakiaren eta betearazpenaren unea baino lehen jada nabarmentzen dira zientzia horien ezagutzak. Historian zehar adina erantzukizuna baztertzeko edo arintzeko kausa izanak agerian uzten du betidanik jakin izan dela giza nortasunaren garapenean fase ezberdinak daudela, zeinetan adimenaren, borondatearen, emozioen eta abarren garapen maila ezberdina den. Aspektu guzti horien garapen mailak eragina izango su erantzukizun kriminala dagoen ala ez erabakitzeke orduan, baita honen graduazioa egiterako orduan (Sánchez García de Paz, 1998).

Gaur eguneko psikologia eta psikiatريان haur eta gaztearen arteko bereizketa egiten da eta, bereizketa hau, ezin da albo batera utzi eremu juridiko penalari dagokionean.

2.1.1. Giza garapenaren lehen etapak: alderdi biologikoa eta psikologikoa

Doktrinak, orokorrean, etapen bereizketa eta definizio berdintsua egiten du, nahiz eta terminologian, batzuetan, ez bat egin.

A. *Haurtzaroaren etapak:*

a. Lehenengo fasea: jaio aurreko fasea

Umetoki barneko garapenari buruzko faktore anitzek eragina izan dezakete gerora jaioberriaren jokabide-ezaugarrietan; horrez gain, lesio fisiko edo psikikoak eragin ditzakete (Sánchez García de Paz, 1998).

b. Bigarren fasea: lehenengo urtea

Fase honetan hasten dira garapen kognitibo eta emozionala. Haurtzaroaren zati honetako adimena praktikoa da, kanpoko munduko esperientziez elikatzen da, eta objektuen aurrean baino ez du jarduten, kanpoko munduarekiko zuzeneko harremanean. Beraz, garai aurre-logikoa da, pentsamendu abstraktuaren aurrekoa (Sánchez García de Paz, 1998).

Garapen emozionalari dagokionez, garrantzi handia hartzen dute fase honetan gurasoekin egindako lotura afektiboek; beraz, fase honetako zaintzaren arabera garatuko du haurrak besteekiko konfiantza. Lotura hau modu egokian ematen ez denean trastorno psikiko edo psikosomatikoak eman daitezke (Sánchez García de Paz, 1998).

c. Hirugarren fasea: lehenengo urtearen bukaeratik hiru edo lau urtera arte

Garapen fisiko eta intelektualaren ikuspegitik aldaketa ugari ematen dira. Bigarren urtean ibiltzeko eta hitz egiteko gaitasunak agertzen dira. Bigarren eta hirugarren urteetan haurrari egindako eskakizun sozialak handitu egiten dira (garbiketa, funtzio fisiologikoen kontrola eta abar irakasten zaizkio) eta hauetara moldatzeko duen ahalmenak etorkizuneko jokabidea baldintzatuko du. Adimenari dagokionez, hitz egiteko eta lehen kontzeptuak formulatzeko gaitasunaz gain, hasierako sailkapen-gaitasuna ere agertuko da (Sánchez García de Paz, 1998).

Emozioen garapenaren aldetik, botere eta indar sentimenduak garatzen dira fase honetan; haurrak erasoei oldarkortasunarekin, haserre-leherketekin edota erresistentzia pasiboarekin erantzuten du. Laugarren urtean imajinazioa eta jolasa loratzen dira, eta identitate sexuala ere finkatzen da. Imitazio, sari edo hertsapenaren bidez haurrak bere sexu rolerako bere kulturak definitzen dituen jokabideak eskuratzen ditu (Sánchez García de Paz, 1998).

d. Laugarren fasea: eskolarizaziotik pubertarora arte

Garapen kognitiboari dagokionez, pentsamendu logikoaren eta arrazoibidearen lehen adierazpenak agertzen dira. Hiru motatako egitura operatiboak eskuratzen dira: sailkapenekoak, seriazioak eta zenbakitzekoak. Aldi honen azken urteetan eragiketa fisikoak, espazialak, denborazkoak eta zinetikoak azaltzen dira. Harreman espazialen eta denborazkoen ulermenetik ondorioztatzen da kausa-efektu erlazioaren ulermena. Errealitatea hautemateko, ez daude jada zentzumen-pertzepzioaren mende, arrazoiketa logikoaren mende baizik, eta horrek objektuak sailkatzeko eta itxura eta errealitatea bereizteko gaitasun handiagoa ematen die_(Sánchez García de Paz, 1998).

Eskolaratzearen hasiera eta horrek dakarren sozializazioa haurren nortasunaren garapenerako faktore garrantzitsuak dira. Haurren harreman sozialak, familia-inguruetik kanpoko beste pertsona batzuekiko harremanetarako irekiera-etapa honetan, hainbat etapa ditu, hasierako formatik hasi eta adiskidetasunaren kontzeptua bereganatzeraino. Aipatutako rol sexualen ezagutza ere nabarmendu egiten da_(Sánchez García de Paz, 1998).

B. *Nerabezaroa:*

Pubertaroaren fenomenoarekin hasten da haurtzaroaren eta helduaroaren arteko igarotze-fase hau. Nerabezaroa kontzeptu kulturala da, gizarte bakoitzaren arabera, eta ez horrenbeste irizpide biologikoen mugatutakoa (Sánchez García de Paz, 1998).

Arlo biologikotik fase honen hasiera zehaztea erraza bada ere, ez da berdina gertatzen bukaerari dagokionean, izan ere, esan bezala, gizarte eta momentu historiko bakoitzaren arabera da, toki eta momentu bakoitzean ezberdina (Sánchez García de Paz, 1998).

Ikuspuntu psikologikotik, garapen kognitibo eta nortasunaren eraketa bizkortu egiten dira. Adimenari dagokionez, logika abstraktua ulertzeko gaitasunak markatzen du. Horrez gain, norberaren barne bizitzaren aurkikuntza ematen da. *Niaren* aurkikuntzarekin batera, norberaren ideia, oroitzapen, sentimendu, jarrera eta aberren analisia egiten da, eta hemendik aurrera, portaerari begira kontuan hartuko dira. Honekin lotuta, nortasun pertsonalaren bilaketa ere ematen da, zeinak nerabezaroaren ezaugarri den identitate

krisia eragin dezakeen. Familia eta lagunek eragin handia dute bilaketa honetan_(Sánchez García de Paz, 1998).

Rol psikosozialaren eboluzioa ere garrantzitsua da garai honetan, izan ere helduen sexu-ezaugarrien garapenak eta sentazio fisiko berrien esperientziak kolokan jartzen dituzte haurtzaroko egitura psikosozialak_(Sánchez García de Paz, 1998).

Nerabezaroaren egitura psikologikoaren jariatortasunak sintoma iragankorrak agertzea eragin dezake; hauek zuzendu egin daitezke, baina diagnostiko ona egitea berebizikoa da, izan ere ez egiteak portaera desbideratuak mantentzea eragin dezake_(Sánchez García de Paz, 1998).

Plano sozialari dagokionez, joera ezberdinak agertzen dira: alde batetik, indibidualtasunari lotutako independentzia eta autorrealizazioa agertzen dira, zeinak gurasoen eta helduen munduaren aurkako jarrera kritiko eta inkonformista eragiten duten. Bestetik, besteekiko komunikazio eta elkartasun jarrerak agertzen dira_(Sánchez García de Paz, 1998).

Aipatutako hiru arlo hauek elkarrekiko eragina dute, hau da, batean ematen diren aldaketek besteetan ere eragina izango dute, bereziki arlo psikologikoan emandako bariazioek_(Sánchez García de Paz, 1998).

2.1.2. Bidegabetasuna ulertzeko gaitasuna eta autodeterminazioa garatzea

Erruduntasuna baloratzeko interes berezia du haurraren garapen moralak, hau da, gertaera baten izaera zuzena edo bidegabea ulertzeko gaitasunak. Gai honen inguruan Piagetek (1932) “irizpide moral” deritzonaren inguruan egindako ikerkuntzek garrantzia handia dute; hauen ondorio nagusia hau da: haurretan bi moral mota agertzen dira, heteronomoa eta autonomoa, bakoitza beren garapenaren fase ezberdinetan_(Sánchez García de Paz, 1998).

Lehenengo fasean (7 edo 8 urtera arte) haurrak moral heteronomoa edo obligaziozkoa jarraitzen du, helduen moralaren presioaren ondorioz. Betebeharraren moral hutsa da, eta ongia helduarekiko obedientziarekin eta errespetuarekin soilik identifikatzen da. Bidezko eta bidegabe kontzeptuak betebeharrarekin eta obedientziarekin identifikatzen dira, hau

da, bidezkoa da agintaritza helduak ezarritako kontsignekin bat datorrena. Obedientzia eta berdintasuna gatazkan sartzen direnean, haurrak beti obedientzia aukeratuko du, beretzat autoritatea justiziaren gainetik baitago. Ordainsari-justiziari dagokionez, zehapen oro legitimotzat hartuko da (Piaget, 1971). Etapa honen ezaugarria da, halaber, errealismo moral; horren arabera, betebeharrak eta balioak legeak zehazten ditu edo legeak berak kontsignatzen ditu, asmoen eta harremanen testuingurua edozein dela ere. Horrek erantzukizun objektiboaren nozio bat sortzen du: egintzak beren benetako ondorio fisikoen arabera epaitzen ditu, legearekin bat datozen ala ez kontuan hartuta, azpian dauden arrazoiak kontuan hartu gabe, adibidez, nahita edo ustekabean egindakoak diren kontuan hartu gabe.

Bigarren fasea 8 urtetik 11 urtera bitartean ematen da. Haurrak jada ez die soilik helduaren aginduei erantzuten, arauari berari erantzuten dio (Piaget, 1971). Banaketa-justiziaren ikuspegitik, fase honetan agintaritzarekiko berdintasunaren ideia garatzen da. Ziurrenik, adimenaren garapenaren ondorio bat da, arau moralen eta datu guztien bidez lan egiten duena, orokortuz eta bereiziz. Ordainsari-justiziari buruzkoetan, ez da jada onetsiko ordaintzeko zehapena, eta elkarrekikotasunetik eratorritakoak bakarrik joko dira legitimotzat.

Azkenik, hirugarren fasean, 11 edo 12 urte aldera, haurra autonomia moralera iristen da, zeina kontzientziak kanpo presio orotik at dagoen ideal independente baten beharra duela ikusten duenean ematen den (Piaget, 1971). Bestalde, fase honetan, berdintasuneko justiziaren nozioa ekitatezko kezkek moderatzen dute. Ekitate nahi hori berdintasuna erlatibitatearen zentzuan garatzea baino ez da, hau da, bakoitzaren baldintzak kontuan hartuz. Irizpide horren ondorioz, ordainsarien justiziaren arloan, guztiei zehapen bera ez aplikatzea eskatuko; eta banaketa-justiziaren arloan, legea denei berdinean ez aplikatzea, bi kasuetan inguruabar bereziak daudela kontuan hartuta. Fase honen bereizgarria da, halaber, motibazioek giza jokabidean duten garrantzia ezagutzea; horrela, motibazioen balio moralak legearen espirituarekin neurtzen hasiko da, eta horrek asmoari eta inguruabarrei erantzutea eskatzen du.

Paralelismoa dago garapen moral eta intelektualaren artean, arau moral eta logikoen artean, moraltasunaren eta arrazoiaren artean. Bietako bat ere ez da jaiotzetikoa, garapenaren eta gizartearen eraginaren ondorio dira (Piaget, 1971).

Behin pentsamendu moralaren garapena ikusita, portaera moralari erreparatu behar diogu. Horri dagokionez, doktrinak ikusten du borondatearen kanpo- eta barne-orientaziorako gaitasuna indartu egiten dela nerabezaroan. Hala ere, nerabeek sarritan ez dute korrelaziorik garapen moralaren mailaren eta portaeraren moraltasunaren artean. Pentsamendu abstraktua eskuratuta, nerabea gai da balio moralak ezagutzeko, eta, gainera, interes handia du gai moralak eztabaidatzeko eta arrazoitzeko, baina egoera hori ez dator beti bat praktika moralarekin. Esperimentazio- eta ikaskuntza-aldia da nerabezaroa, eta, horregatik, askotan, jokabide desbideratuak eta marjinalak ager daitezke. Ikuspuntu klinikotik, maiztasun hori, askotan, “saiakuntza oker” bidezko ikaskuntza-praktika baten emaitza gisa azaltzen da, non gizarteak jokabide horien aurrean emandako erantzunen bidez ikasten den (Sánchez García de Paz, 1998).

2.2. Adingabea eskubidedun subjektu gisa

2.2.1. Adingabearen Zigor Zuzenbidearen jatorria Espainian

A. Pare d'orfens

Fuge et Pare d'orfens Haurrentzako Auzitegien garapen bidean ezagutzen den lehen erakundea da, Pedro IV erregeak, Pedro Zeremoniatsua ere deituak, 1337. urtean sortutakoa. Figura honek Aragoi, Valentzia eta Nafarroan 1793. urtera arte funtzionatu zuen, Carlos IV erregeak ezabatu zuen arte (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

Instituzio hau zen kalean zeuden adingabe eskaleak eta alferrak, umezurtzak edo babesgabeak jaso eta Etxe Komun batean sartzeaz arduratzen zena, hauek lanbide bat ikasteko beharrezko ezagutzak jaso zitzaten (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

Horrela, Pare d'orfens delakoak kuradore funtzioa betetzen zuen, izan ere adingabeak zeuden arriskuetatik aldentzera bideratua zegoen, beren jarreraren arabera zeregin egoki bat bilatzera; gainera, nolabaiteko autoritate zibila ere bazuen. Honekin esan daiteke, lanaren filosofia jarraitzen zuela arau hauslearen luditze moduan. Halaber, hasieratik paper asistentziala ere izan zuen. Denborarekin, instituzio hau izaera zuzentzaileagoa zuten funtzioak egikaritzen hasi zen, eta, Justiziaren zigorrak eraginkorrak ez zirenez,

denbora mugatuan girgiluak eta zepoak erabiltzen zituzten; azkenean, praktikan Epaille Penal baten funtzioak betetzen bukatu zuen eta adingabeen zigorrak erabakitzeaz arduratzen zen (Cámara Arroyo, Antecedentes históricos del tratamiento penal, 2016).

Figura honek, beraz, justizia eman ziezaiekeen atxilotuei, kartzeletan giltzaperatuz, non arau-hausleen adinarekin bat zetozen zigorrak ezartzea baimenduta zegoen. Karguak asko errespetatzen ziren eta, horregatik, ezaugarri berezi batzuk konplitzen zituzten funtzionarioek soilik betetzen zituzten: errespetagarriak eta ezkonduak izan behar zuten eta doan zerbitzatu beharko zuten urtebeteko epean; eta, horrez gain, ospe eta baldintza zintzoa izan behar zuten zuzenketak egiteko eta zigorren intentsitatea neurtzeko (Cámara Arroyo, Antecedentes históricos del tratamiento penal, 2016).

Adingabeen zuzentasun eta bitartekotasunari dagokionez, umezurtzak instituzioan bertan egoten ziren, adineko emakume baten kargupean, zeina bertan bizi zen. Haurren zuzentasuna aguazilaren esku zegoen, umezurtzen aitaren begiradapean beti. Erakundearen azken bosturtekoan, adingabeak Misericordia Etxeko Gordailuan barneratuak izan ziren, emakumezko eta gizonezkoen artean bereiziz (Cámara Arroyo, Antecedentes históricos del tratamiento penal, 2016).

Erreinu ezberdinetan izandako hedapenak Adingabeen Epaitegiaren aitazindari gisa ezarri bazuen ere, bazeuden zenbait berezitasun toki bakoitzean. Nafarroan, adibidez, izaera zibilagoa eta administratiboagoa izan zuen, bere funtzioak ume abandonatuak jaso eta lekualdatzera eta eskaletasunari aurka egitera mugatu zituen. Zaragozan, umezurtzen babesa egiteaz gain, instituzio valentziarraren modu berdintsuan, polizia eta zigor funtzioak ere egiten zituen. Gaztelan ere, XVII. mendean, antzeko instituzio bat sortu zen: Adingabeen Aita Nagusiaz, karitatezko sentimenduarengatik baino, umezurtzen aldeko tutoretzako izaerak ezaugarritua. Madrilen 1421ean Bakearen eta Karitatearen Artxikofradia sortu zen, non Umezurtzen Aita Nagusiaren jardunaz gain, adingabeez arduratzen ziren ermandadeak ere bazeuden (Cámara Arroyo, Antecedentes históricos del tratamiento penal, 2016).

B. *Ume abandonatuen etxeak, umezurtz- eta erruki-etxeak*

XVII. mendearen amaieratik, eta bereziki XVIII. mendearen hasieratik, abandonatutako haurrak batzeko helburudun umezurtz- eta erruki-etxeen sortzeko joera hedatu egin zen. Etxe hauetako gehienak umeak batu eta babesteko ziren, baina aglomerazio eta pilaketa handia egon ohi ziren eta, teorian oinarrian zituzten ideal hezitzaileak, praktikan ez ziren bat ere ez ikusten (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

Aipatzekoa da Toribio de Velasco izeneko gizon batek Sevillan 1723an sortutako umezurtz-etxea. Gizon hau, liburu saltzaile xume bat zen eta, zituen baliabide eskasekin eta esfortzu handiarekin, haur delitugileen izaera eta ohitura desegokiak aldatzeko instituzio bat sortu zuen, zeina “los Toribios” izenez ezagutzen zen. Hezkuntza-sistema batean oinarrituz antolatutako mota honetako lehen erakundea izan zen, adingabeen parte hartzearekin, jarduera bakoitzerako ordutegi mugatuekin, haurren erregistro pertsonalarekin eta ikasleen lanbide heziketara zuzendutako tailerrekin (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002). Tutoretza Epaitegi eta erreformatzeko eskola funtzioak zituen instituzio honen garrantzia handia izan zuen, izan ere adingabeen barneratze-zentroen eta adingabe arau-hausleentzako zuzenketa ekimenaren aitzindaria izan zen (Cámara Arroyo, Antecedentes históricos del tratamiento penal, 2016). Gizon honek egindako lana barneratze zentroetan adingabe eskaleek jasotako arretari begira oso garrantzitsua izan bazen ere, behin hil zenean astiro-astiro ahultzen joan zen, desagertu arte (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

Carlos III.aren erregealdian, hurrengo garaian emandako gelditze edo atzerapenarekin alderatuz, aurrerakuntza handia eman zen adingabeen babes sozialari zegokionean. Zenbait xedapenen bitartez, aurreko mendeetako penaltate gogorraren eta zigor basatien oinarrian zeuden irizpideak desagerrarazteko ahalegina egin zuen. Neurri gizagabeak alde batera geratu eta tutoretzako eta hezkuntzazko prozedurak hasi ziren martxan, hala nola haurtzaroaren edota adingabe eskaleen inguruan hartutako neurriak, erruki-etxeen sorrera, etab. (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

1796an, Carlos IV.ak, seme-alaba ez-legitimoak zituzten amen artean hain ohikoa zen infantizidioarekin bukatzeko asmoz, ume abandonatuen etxeak eratzeko erregelamendu bat ezarri zuen, non, beste gauza batzuen artean, amei modu anonimoan seme-alaba

horiek erakunde horietan entregatzeko erraztasunak ematen zitzaizkien. Hala ere, legegilearen asmoa bazen ere, haur hauen bizi baldintzak eta bizirik irautea lortu zutenen etorkizuneko espektatibak ez ziren oso itxaropentsuak. Carlos IV.aren neurri hauek oso noizbehinkakoak izan ziren eta, esan bezala, garai hau atzerapauso handia izan zen haurtzaroaren babesari dagokionez (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

Denboraren poderioz monarka ilustratuak eginiko xedapen horiek erabiltzeari utzi zitzaion eta XIX. mendearen lehen laurdenera arte ez da Carlos III.ak alferkeriaren eta gazteen kriminalitatearen aurka hartutako neurri horiekin alderatu daitekeen disposiziorik agertuko. 1834ko presondegien ordenantzara arte ez zen Espainian gazte delinkuentzian berriro pentsatu, eta hemen espetxeetan kriminal heldu eta gazteen bereizketa egiteko (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

C. Ongintza eta filantropia pribatuak:

XIX. mendean eta XX. mende hasieran ez zen Estatu mailako eskuhartzerik egin, orokorrean batzuentzat umezurtz eta ume abandonatuen etxeen sistemarekin jarraitu zen eta besteentzat espetxearekin. Dena den, XIX. mendean hasi ziren botere publikoak umeengan identitate propioa eta behar berezidun subjektu moduan pentsatzen. Hala ere, garaiko Zigor Kodeak oso abstraktuak eta ulergaitzak ziren, irizpide objektiboarekin eta ordainketa printzipioarekin lar kontsekuenteak ziren, eta ez zuten delitugile heldu eta adingabeen arteko funtsezko bereizketarik egiten (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

Gobernuek haurren ongizateari buruz zuten interesarekin batera, haurtzaroaren araziekiko sentsibilitate berri batek lagunduta, hiritarrek sustatutako ongintza pribatua ere hedatu zen. Egoera horretan, haur disozialen zainketa, babes eta berreziketara zuzendutako erakundeak agertzen hasi ziren. Aipatzekoa da Valentziako Espetxean Montesinos koronelak egindako lana; haur preso eta preso helduen arteko bereizketa egiteko ahalegin handia egin zuen, haur eta gazteak bere kargu zituen funtzionario onenen kargupean egoteko saiakera egiteaz gain, 18 urte baino gutxiagoko presoentzat sail berezi bat sortu zuen, berau tailer eta eskolaz hornituz (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

XIX. mende bukaeran, gizartearen zenbait sektoreren artean adingabeen desbideraketa sozialaren inguruan emandako ardurak 1899an haurrentzako lehen epaimahaia agertzea eragin zuen. Honen ondorioz, baita ere, garaiko egoera sozial tamalgarriari aurre egiteko lege eta erakunde berriak agertzen hasi ziren (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

1880an, iniziatiba pribatuz “El Patronato de Nuestra Señora de la Merced” erakundea sortu zen Bartzelonan, hiriko haur presoek babesteko. Urte batzuk beranduago izena aldatu eta helburu gisa zera finkatu zuten: espetxeratutako gazteen birgaitze moral eta soziala lortzea, eta besteak abandonuaren, miseriaren, tratu txarren eta moraltasun ezaren aurka babestea. 1870an, espetxeratutako adingabeen defentsarako kanpaina bat hasi zen, delituzko portaerak izandako adingabeentzako eskola berezien sorrerarako (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

D. *Haurrentzako Epaitegiak:*

Aurretiaz aipatutako erakundeek erabilera mugatuz joan ziren ondorengo Zigor Kodeak. 1822koan, 7 urtetik beherako haurrak egoztezinak ziren; 7 eta 17 urte bitarteko adingabeen kasuan, beren gaitasun intelektualen arabera, zehaztasunez eta maltzurkeriaz jokatu zuten aztertu behar zen. Zehaztasunik ez zegoen kasuetan, bi aukera zeuden: gurasoei ematea (haurraren heziketa egokia egingo zutela uste zenean) edo zentzategian barneratzea (epaileak egoki ikusten zuen denboraz, gehieneko epea 20 urte bete arte izanda). Zehaztasunez jardundako kasuetan, adingabea helduen espetxean barneratzen zen. Hoenek, 1834an Presondegien Ordenantza Orokorra promulgatzea eragin zuen, zeinak esaten zuen 18 urte baino gutxiagoko adingabe delitugileak departamentu berean barneratuko zirela, baina helduengandik bereizita (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

1848ko Zigor Kodeak egozgarritasunaren muga 9 urtetan finkatu zuen; 9 urte baino gutxiagoko haurrak egoztezinak ziren, baita 9 eta 15 urte bitartekoak ere zehaztasunik gabe jarduten zutenean. Zehaztasunez jarduten zuten adingabeei eskumenezko zigor ezartzen zitzaizkien, betiere zigorraren gehieneko muga legeak egindako delituarengatik aurreikusitako zigorra baino bi gradu gutxiagokoa izanik. 1850 eta 1870eko kodeen ere berdina esaten zuten, baina egoztezinen kasuan zaintza eta heziketarako gurasoei ematea

edo denbora mugatuz barneratzea aurreikusten ziren (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

Kode guzti hauek zehaztasunaren irizpidea erabiltzen zuten erantzukizuna zehazteko, baina ez zen kontzeptu oso argia. 1928ko kodeak bukatu zuen sistema honekin eta 16 urtera igo zuen egozgarritasunaren muga. 1932 eta 1944koan hala mantendu zen, 1995ekoan adin nagusitasuna 18 urtetan finkatu zen arte (Sánchez Vázquez & Guijarro Granados, 2002).

2.2.2. Nazio Batuen Erakundearen araudia

1) Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH)

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena Nazio Batuen Batzar Nagusiak hartu zuen 1989ko azaroaren 20an A/RES/44/25 Erabakiaren bitartez. Espainiak 1990eko abenduaren 6an berretsi zuen, eta 1991ko urtarrilaren 5ean sartu zen indarrean, hitzarmenaren 49. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Adingabearen figuraren bilakaeran, eskubidedun subjektu gisa, une garrantzitsu bat izan zen, haren ongizatea eta garapena ahalbidetzeko babes berezia eman behar zitzaioela ezarri baitzuen (Ornosa Fernández, 2003).

Hiru printzipio nagusi ondorioztatzen dira testu osotik (Ornosa Fernández, 2003):

- Berdintasun printzipioarekin lotutako diskriminaziorik ezaren printzipioa (2. artikulua).
- Haurren interen gorenaren printzipioa (3. artikulua).
- Bizitzeko, bizirauteko eta garapenerako eskubidearen printzipioa (6. artikulua).

“Haur” gisa zer ulertu behar den definitu zuen HEHren 1. artikulua: 18 urte baino gutxiagoko gizaki oro, aplikagarri zaion araudiaren arabera adin nagusitasuna arinago lortzen den kasuetan salbu (Ornosa Fernández, 2003) (Pérez Vaquero, 2014).

Gazte-justiziaren eremuari dagokionez, *Beijingo Arauetako* xedapenetan zehaztutako ildo nagusiak errepikatzen dituzten bi manu nabarmentzen dira: 37. eta 40. artikulua.

37. artikulua askatasun-gabetzearen inguruko printzipioak finkatu zituen, egoera horretan zeuden adingabeentzat berme eta eskubide guztiak betetzen zituen sistema lortzeko asmoz. Zentzu horretan hurrengo adierazten zuen (Ornosa Fernández, 2003) (Pérez Vaquero, 2014):

- a) Haur batek ere ez du torturarik jasango, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrikerik ere. Zehazki, ez da ez heriotza-zigorrik ezta biziarteko espetxe zigorrik ezarriko 18 urtetik beherakoek egindako delituengatik.
- b) Haur bat ere ez da legez kontra edo arbitrariotasunez askatasunaz-gabetuko. Haur bat atxilotzea edo espetxeratzea azken baliabidezko neurri gisa eta dagokion epe laburrenean baino ez da erabiliko.
- c) Askatasunaz-gabetutako haur oro gizakiari datzekion duintasunak merezi duen gizatasun eta errespetuz tratatuko da, eta bere adinek pertsonen behar fisiko, sozial, kultural, moral eta psikologikoak kontuan hartuko dira. Bereziki, haur hauek helduengandik bananduta egongo dira, baldin eta hori haurraren interes gorenaren aurkakotzat jotzen ez bada, eta haien familiekin posta eta bisiten bidez harremanetan egoteko eskubidea izango dute salbuespenezko egoeretan izan ezik.
- d) Askatasunaz gabetutako haur orok laguntza juridikoa eta beste laguntza egokiren bat lastertasunez jasotzeko eskubidea izango du, baita auzitegi baten edo beste agintaritza eskudun, inpartzial eta independente baten aurrean askatasun-gabetzearen legezketasuna aurkaratzeko eta ekintza horri buruzko erabaki azkar bat izateko eskubideak ere.

40. artikulua, berriz, adingabeen justiziaren administrazioan zentratu zen eta hurrengo xedatu zuen (Ornosa Fernández, 2003) (Pérez Vaquero, 2014):

1. Estatu Kideek aitortzen dute zigor-arloko legeak hausteagatik erruduntzat jotzen, akusatzen edo deklaritzen den haur orok eskubidea duela bere duintasunaren eta balioaren zentzuaren sustapenarekin bat etorritzat tratatua izateko, haurrak hirugarrenen eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko duen errespetua indartuz eta bere adina, integrazioaren sustapenaren eta gizartearen eginkizun eraikitzailea bere gain hartzeak duen garrantzia kontuan hartuz.
2. Helburu horrekin, eta nazioarteko tresnen xedapenak kontuan hartuz, Estatu Kideek honako hauek bermatuko dituzte, bereziki:

- a. Haur bat ere ez da zigor-arloko legeak hausteagatik erruduntzat jo, akusatu edo deklaratu egitateen momentuan lege nazional edo nazioarteko batek ere debekatzen ez duen egite edo ez-egite batengatik.
 - b. Haur bat zigor-arloko legeak hausteagatik erruduntzat jotzen denean, berme hauek bermatuko zaizkio, gutxienez:
 - i. Errugabetzat joko da, legearen arabera erruduna dela frogatzen ez den bitartean.
 - ii. Atzerapenik gabe eta zuzenean edo, beharrezkoa denean, gurasoen edo legezko ordezkarien bitartez, bere aurkako karguen berri emango zaio, eta laguntza juridikoa edo beste laguntza egokiren bat izango du defentsa prestatzeko eta aurkezteko.
 - iii. Agintari edo organo judizial eskudun, independente eta inpartzial batek atzerapenik gabe legearen arabera bidezko entzunaldi batean ebatziko du auzia, aholkulari juridiko baten edo beste aholkulari egoki baten aurrean, betiere hori haurraren interes gorenaren aurkakoa ez bada, eta, bereziki, haren adina edo egoera eta gurasoak edo legezko ordezkariak kontuan hartuta.
 - iv. Ez da lekukotza ematera edo bere burua erruduntzat jotzera behartua izango, kargu-lekukoak galdekatu edo galdekatzea eskatu ahal izango du, eta deskargu-lekukoen parte-hartzea eta galdeketa lortu ahal izango du berdintasun-baldintzetan.
 - v. Haurrak, hain zuzen ere, zigor-arloko legeak hautsi dituela kontsideratzen bada, erabaki hori eta horren ondorioz ezarritako neurri oro goragoko agintari edo organo judizial eskudun, independente eta inpartzial baten mende jarriko dira, legearen arabera.
 - vi. Haurrak hizkuntza ulertzen edo hitz egiten ez badu, doako interprete baten laguntza izango du.
 - vii. Prozedimenduaren fase guztietan bere bizitza pertsonala errespetatuko da.
3. Estatu Kideek, zigor-legeak urratu izana alegatzen den haurrentzat edo berauek hausteagatik akusatu edo erruduntzat jotzen direnentzat, lege, prozedura, agintari

eta erakunde zehatzen ezarpena sustatzeko neurri egokiak hartuko dituzte, bereziki:

- a. Haurrek zigor-arloko legeak hausteko gaitasunik ez dutela uste izateko gutxieneko adina ezartzea.
 - b. Egokia eta desiragarria den guztietan, haur horiek prozedura judizialetara jo gabe tratatzeko neurriak hartzea, giza eskubideak eta legezko bermeak erabat errespetatuko direla ulertuta.
4. Hainbat neurri aurreikusiko dira, hala nola zaintza, orientazio- eta gainbegiratze-aginduak, aholkularitza, zaintzapeko askatasuna, zaintza-etxeetan kokatzea, irakaskuntzako eta lanbide-heziketako programak, bai eta erakundeetan barneratzearen ordezkoko beste aukera batzuk ere, haurrak beren ongizaterako modu egokian tratatuak izan daitezten eta zirkunstantzietatik nahiz arau-haustearekiko proportzionalak izan daitezten.

Zalantzarik gabe, testu hori izan zen hura berretsi zuten herrialdeetan gai horren garapena izan denaren oinarria, eta nahitaezko erreferentzia da Espainian; izan ere, EKren 96. artikulua balio osoz egindako nazioarteko itunak, Espainian ofizialki argitaratu ondoren, barne-ordenamenduaren parte izango direla ezartzen du (Ornosa Fernández, 2003).

2) *Adingabeen justizia administratzeko Nazio Batuen gutxieneko Arauak (Beijingo Arauak)*

Arau hauek “*Beijingo Arauak*” moduan ere ezagutzen dira eta 1985eko azaroaren 29an Batzar Orokorrak ezarri zituen bere 40/33 Erabakiaren bitartez, Gazteriaren Nazioarteko Urtean (Pérez Vaquero, 2014).

Adingabearen ongizatea lortzea zuten xedetzat, ahal izanez gero adingabeak justizia sistematik igarotzea eragotziz eta, ezinezkoa den kasuetan, igarotze horrek adingabeari ahalik eta kalte gutxien eragitea lortuz eta bere ongizatea bermatuz (Ornosa Fernández, 2003).

Erregulazioaren puntu nabarmenak hauek izan ziren (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Ornosa Fernández, 2003):

1. Adingabeen justizia adingabeentzako gizarte-justiziaren osagaitzat eta benetan delituaren eta gazte-delinkuentziaren prebentzioan oinarritutako gizarte-politikaren azken kate-mailatzat hartzea.
2. Adingabea definitzeko adin-muga zorrotzik ez ezartzea, xedapenen aplikazioa heldu-gazteei ere hedatuz. Hala ere, 4. arauaren arabera, adingabeei dagokienez zigor-arloko adin-nagusitasunaren kontzeptua aitortzen duten sistema juridikoetan, heldutasun emozional, mental eta intelektuala kontuan hartu beharko dira, eta, beraz, adin hori ezingo da gaztegia izan.
3. Adingabeen edo gazte- delituen onarpena, hau da, helduentzat zigorgarriak ez diren, baina adingabeentzat zigorgarriak diren portaeren onarpena.
4. Esan bezala, adingabeen justiziaren helburua adingabearen egoerarekiko eta burututako portaerarekiko proportzionalak diren esku-hartzeen bitartez eta intimitatea bermatuz adingabeen ongizatea lortzea da. Hori horrela, epaileentzat behar besteko tarte diskrezionala irekitzea proposatzen da, horien prestakuntza edo gaikuntza espezifikoa funtsezkotzat joz.
5. Adingabeen justiziak benetako justizia izan behar du, oinarritzko berme prozesalاک errespetatuz eta, bereziki, errugabetasun-presuntzioa eta eskubide-multzo bat errespetatuz, hala nola: akusazioa ezagutzeko eskubidea, ez erantzuteko eskubidea, abokatuaren asistentzia izateko eskubidea, guraso edo tutoreen presentzia izateko eskubidea, testiguen bekaldura eta galdeketa izateko eskubidea eta apelazio edo errekurtsorako eskubidea (Ornosa Fernández, 2003).

3) *Gazte delinkuentzia prebenitzeko Nazio Batuen Gidalerroak (Riad-eko Gidalerroak)*

Gazte delinkuentzia prebenitzeko Nazio Batuen Gidalerroak edo *Riad Gidalerroak* Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zituen 1990eko abenduaren 14an 45/112 Erresoluzioaren bitartez (Ornosa Fernández, 2003).

Gazte delinkuentzia ekiditeko irizpide garrantzitsuak eman ziren, premisa simple batean oinarrituz: gazte delinkuentzia prebenitzea ezinbestekoa da delituei aurre hartzeko, horregatik gizarte osoak nerabeen garapen harmoniatsua lortzeko ahalegina egin behar du, lehen haurtzarotik hasita beren nortasuna errespetatuz eta sustatuz (Pérez Vaquero, 2014). Asmo horrekin, prebentzio orokorrari eta baita familiaren, komunitatearen, antzeko egoeran dauden gazte taldeen, eskolen, formazio profesionalaren eta lan-

ingurunearen bidez egindako prebentzioari egiten zaie erreferentzia, komunikabideek gaiaren inguruan duten papera nabarmenduz (Ornosa Fernández, 2003).

4) *Askatasunaz gabetutako adingabeak babesteko Nazio Batuen arauak (Habanako Arauak)*

Askatasunaz gabetutako adingabeak babesteko Nazio Batuen arauak edo *Habanako Arauak* Nazio Batuen Batzar Orokorrak berretsi zituen 1990eko abenduaren 14an 45/113 Erresoluzioaren bitartez (Ornosa Fernández, 2003) (Pérez Vaquero, 2014).

Askatasunaz gabetutako adingabeentzat segurtasun, berme eta eskubidedun sistema bat lortzera bideratu ziren (Ornosa Fernández, 2003), atxiloketa mota guztien ondorio kaltegarriari aurre egiteko eta gizarteratzea sustatzeko asmoz (Pérez Vaquero, 2014).

Arau hauen edukiak *Beijingo Arauek* askatasunaz gabetutako adingabeei buruz egindako gomendioak garatu eta osatzen ditu, askatasun gabetzea beti azken errekurtsio gisa, denbora mugatuz eta salbuespenezko egoeretan soilik erabiltzeko beharra eta erugabetasun presuntzioa errespetatzeko beharra azpimarratuz (Ornosa Fernández, 2003) (Pérez Vaquero, 2014).

11. arauak NBEk adingabetasunari buruz emandako definizioa berresten du (18 urte baino gutxiagoko pertsona oro) gutxieneko adinik ezarri gabe, baina legeak “haurrak askatasunaz gabetu ahal izateko gutxieneko adin bat” zehaztu beharko duela errepikatuz; horrez gain, askatasun gabetzearen definizioa ematen du.

Arauek, gainera, barneratze zentroek izan beharreko oinarrizko baldintzei lehentasuna ematen diete, hala nola: adingabeei buruzko dokumentazioa, helduengandik bereiztea, higiena, osasuna, intimitatea, elikadura, beren beharrianetara egokitutako hezkuntza, aisialdirako jarduerak, praktika erlijiosoak, komunikazioa eta bisitak, disziplina-araubideak eta zehapenak, birgizarteratze programak eta langileen formazio espezializatua (Ornosa Fernández, 2003).

5) *Askatasunaz gabetzen ez duten neurriei buruzko Nazio Batuen gutxieneko arauak (Tokioko Arauak)*

Arau hauei *Tokioko Arauak* ere esaten zaie eta Nazio Batuen Batzar Orokorrak berretsi zituen 1990eko abenduaren 14an 45/110 Erresoluzioaren bitartez. Ez dira zehazki adingabeei buruzkoak, espetxeratzearen ordezkoko neurriak aplikatuko zitzaizkien akusazio, epaiketa edo epai baten betearazpena jasan behar zuten pertsona guztiei buruzkoak baizik (Pérez Vaquero, 2014).

4. arauak babes-klausula deritzona aurreikusten du; hau da, honen arabera, *Tokioko Arauetako* xedapenak ezingo dira *Beijingo Arauak* baztertuz aplikatu (Pérez Vaquero, 2014).

Gainera, arau berri horietan oinarrizko printzipio batzuk sartzen dira, komunitateak zigor-arloko justiziaren kudeaketan parte-hartze handiagoa izan dezan (bereziki, delitugilearen tratamenduari zegokionez), haiengan gizartearekiko erantzukizunaren zentzua sustatzeko, gaizkileen eskubideen, biktimen eskubideen eta gizarteak segurtasun publikoa eta delituaren prebentzioa lortzeko duen interesaren arteko oreka egokia lortze aldera (Pérez Vaquero, 2014).

Prozesu judizialean, epaileak erruduna espetxean sartzearen alternatiba gisa delitugilearen errehabilitazio-beharrak, gizartearen babesa eta biktimaren interesak kontuan hartzen dituzten beste zehapen batzuk ere aplika daitezkeela kontuan hartu beharko du; besteak beste, ahozko zehapenak, baldintzapeko askatasuna, beste eskubide batzuek gabetzen duten zigorrak eta abar (Pérez Vaquero, 2014).

Hala ere, ondorengo fase batean ere, epaileak epaia eman ondoren, ordezkoko beste neurri batzuk har ditzake kondenatutako delitugilea espetxean sartzea saihesteko, eta laguntza eman diezaioke lehenbailehen gizarteratu dadin; adibidez: baimenak eman, lan egitera edo ikastera joateko libre utziz, baldintzapeko askatasunaren forma desberdinak aplikatuz edota indultu bidez (Pérez Vaquero, 2014).

6) *1997/30 Ebazpena, ekainaren 21ekoa, adingabeen justiziaren administrazioari buruzkoa, NBEko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarena (EKOGIZ)*

NBEren Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (EKOGIZ) onartu zuen 1997ko uztailaren 21ean 1997/30 Erabakiaren bitartez (Pérez Vaquero, 2014).

1. atalean adierazten denez, adingabeen zigor justiziar buruzko jarraibide multzoa da. Honen bitartez HEHn ezarritakoa aplikatu nahi da, printzipio garrantzitsu batean oinarrituz: adingabeen justiziaren administrazioari dagokionez, jarraibide guztiak HEHren parte diren Estatu Kideek bertan xedatutakoa betetzeko eta helburuak betearazteko duten obligazioan oinarritzen dira; horrela, Nazio Batuen xedapen eta arauak bere Estatuaren legedian erabat jasota geratuko dira, bereziki, haurrei begirako eta adingabeen eskubideak bermatuko dituen adingabeen justizia-sistema bat sortuz, zeinak haurren eskubideen urraketa prebenituko duen, haurraren duintasunaren eta balioaren zentzua sustatuko duen eta haren adina, garapen-aroa eta gizartean aktiboki parte hartzeko eskubidea erabat errespetatuko dituen (Pérez Vaquero, 2014).

Helburu horrekin, Ebazpenak zenbait plan eta jomuga ezartzen ditu HEHa aplikatu eta bete dadin; biktima edo lekuko diren adingabeentzako berariazko hamaika jarraibide (43tik 53ra) sartu zituen, justiziarako sarbide egokia, bidezko tratamendua eta gizarte-laguntza izan ditzaten zainduz (Pérez Vaquero, 2014).

7) 10. ohar orokorra (2007), Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordearena

Genevan hartu zen 2007ko otsailaren 2an eta orain arte aipatutakoaren laburpena izan zela esan daiteke. Hain zuzen ere, Oharraren sarrerak berak haren helburua Estatu Kideei HEHren araberako adingabeen justizia-administrazio bat ezartzeko orientazio eta gomendio zehatzagoak ematea zela onartu zuen (Pérez Vaquero, 2014).

Justizia horrek, besteak beste, honako helburu hauek sustatu beharko lituzke: espetxeratzearen ordezkotako neurriak hartzea, hala nola justizia-leheneratzailea; gazte-delinkuentzia prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko politika orokorra aplikatzea; eta politika hori herrialdeek justiziarekin gatazkak dituzten haurren gaiari modu eraginkorragoan heltzeko eskaintzea, haurraren interes gorenen arabera ez ezik, gizartearen epe labur eta luzerako interesen arabera ere (Pérez Vaquero, 2014).

Oharrak adingabeen edozein justiziaren politika orokorra orientatu behar duten oinarritzko printzipioak gogorarazi zituen: diskriminaziorik eza, haurraren interes gorena, bizitzeko,

biziraupenerako eta garapenerako eskubideak, haurren iritziarekiko eta duintasunarekiko errespetua (Pérez Vaquero, 2014).

Azkenik, Oharrak estatuak oinarrizko hainbat gaitan hartu beharreko jarraibideak ezarri zituen: gazte-delinquentziaren prebentzioa; esku-hartzeak (bai jardura judizialen testuinguruan gertatzen direnak, bai prozedura judizialek ez jotzea dakartenak); adingabeen justiziarako adin-mugak; epaiketa inpartzial baten bermeak; eta abar (Pérez Vaquero, 2014).

Nazio Batuen sistemaren esparruan emandako nazioarteko orientazio horien guztien batura, gaur egun, Latinoamerikak eta Europak adingabeen justizia-sistema propioak garatzeko kontuan hartu duten erreferentea da (Pérez Vaquero, 2014).

2.2.3. Europako araudia

Nazio Batuen testuinguruan bezala, Europan ere Europako Kontseiluko eta Europar Batasuneko hainbat erakundek irismen juridiko desberdineko tresnak aldarrikatzen dituzte, eta tresna horiek jarraibide gisa erabili dira ordenamendu juridiko nazional desberdinak bideratzeko, gazte-delinquentziaren arazoari erantzuteko.

2.2.3.1. Europako Kontseilua

1) *Ebazpena (66) 25, 1966ko apirilaren 30ekoa, 21 urtetik beherako delitugile gazteen iraupen laburreko tratamenduari buruzkoa*

Ebazpenaren helburua gazte delinquentziari aurre egiteko zenbait neurri proposatzea izan zen; ahal izanez gero espetxe zigorraren aurrean tratamendu laburrak erabiltzeko gomendioa egin zuen; tratu egoki, positibo eta malgua izateko delitugileen adina kontuan hartu beharko zuketzen zentro berezietan barneratuz, non langileak beren gaitasunen arabera aukeratuak izan beharko ziratekeen. Horrez gain, baliatutako metodoen erabilgarritasuna neurtzeko estatistikak erabilera sustatu zen (Pérez Vaquero, 2014).

2) *Ebazpena (67) 13, 1967ko ekainaren 29koa, prentsari eta gazteen babesari buruzkoa*

Ebazpen honetan, Europako Kontseiluak komunikabideek gazteen portaeran izan zezaketzen eraginaren inguruko kezka adierazi zuen; horretarako, prentsak funtzio

hezitzailea garatzea proposatu zen, gazteen delinkuentzia prebenitzen laguntzeko asmoz. Hurrengo urtean, organo berak beste ebazpen bat eman zuen –1969ko martxoaren 7ko *Ebazpena (69) 6*–, zinemari buruzko ideia bera azpimarratuz (Pérez Vaquero, 2014).

3) *Ebazpena (78) 62, 1978ko azaroaren 29koa, gazte delinkuentziari eta gizarte aldaketari buruzkoa*

Ebazpen honekin Arazo Kriminaletarako Europako Komiteak izaera sozialeko neurrien bitartez egindako prebentzioaren alde egin zuen. Aipatutako neurri horiek familiei laguntzak ematearekin eta etxebizitzan bizigarritasuna hobetzearekin, gazteen asoziazionismoaren sustapenarekin (jolas- eta aisialdi-jardueren areagotzearekin) eta eskolatzeko baldintzak ikasleentzako beharren arabera erreformatzearekin lotuta zeuden. Guzti hori zehapenen eta bestelako neurrien helburua hezitzailea eta birgizarteratzearen aldekoa izatea bermatuz (Pérez Vaquero, 2014).

4) *Gomendioa (87) 20, 1987ko irailaren 17koa, gazte delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruzkoa*

Gomendio honetan gazte delinkuentziaren esparruko hainbat jarraibide ezarri ziren, adingabeak eboluzioan dauden subjektuak direla eta adinekoei bermatzen zaizkien berme juridiko berberak bermatu behar zaizkiela kontuan hartuz. Helburutzat prebentzioa eta heziketa zuten jarraibide horiek, une berezietan eta mekanismo hauen bitartez gauzatzen ziren: prebentzioa, desjudizializazioa, adingabeen justizia, esku-hartzea (tratamendu-neurriak) eta ikerketa. Horien garapena Nazio Batuen araudian ezarritako aurreikuspenen oso antzera gauzatu zen, bereziki *Beijingo Arauak* kontuan hartuz (Sanz Hermida, 2002).

Prebentzioaren arloan, gazteak gizarteratzeko politika globalak aplikatzea, programa espezializatuak sartzeko eta prebentzio situazionala ezartzea aholkatzen zuen (1. artikulua).

Gainera, hasieratik (poliziaren esku-hartzearekin) desjudizializazio- eta bitartekaritza-prozedurak garatzeko eta adingabeak babesteko zerbitzuekin lankidetzan aritzera bultzatzen zen (2. eta 3. artikulua).

Adingabeen prozesu penalar dagokionez, honako hauek proposatzen ziren: sinplifikazio-eta azelerazio-mekanismoak sartzeara, horiek ezagutzeko jurisdikzio-organo espezializatuak mantentzea, gutxieneko esku-hartzearen printzipio penala eta egokitasunaren printzipio prozesala aplikatzea, adingabearen behin-behineko atxilotze-eta barneratze-kasuak ahalik eta gehien murriztea, eta oinarrizko berme prozesalak errespetatzea (4-10. artikulua).

Esku-hartze posibleei erreparatuz, adingabeen barneratzeak ahalik eta gehien murriztea, ingurune natural eta hurbilenean gara zitezkeen neurriak ezartzea eta, une oro, printzipio hezitzailea kontuan hartzea aldarrikatzen zen (11-17. artikulua).

Azkenik, adingabeen arloko esku-hartze politikak aurreikusteko tresna gisa garrantzi berezia eman zitzaion mota honetako delinkuentzian inplikaturako eremu guztien inguruko konparaziozko ikerketak egiteari (18. artikulua).

5) *Gomendioa (88) 6, 1988ko apirilaren 18koa, emigratzaileen familietatik datozen gazteen delituzko portaeren aurreko gizarte-erreakzioari buruzkoa*

Gazte askok harrera-gizarteetan integratzeko edo derrigorrezko eskolatzera heltzeko dituzten zailtasunen ondorioz delituak egin ditzaketela abiapuntutzat hartuta, garrantzi handia eman zion gomendio honek laguntza- eta partaidetza-politikak sustatzeari, horretarako, irakasle, polizia eta gizarte-erakundeei adingabeen kultura-balioekiko sentsibilizazioa eskatuz (Pérez Vaquero, 2014).

6) *Gomendioa (2000) 20, 2000ko urriaren 6koa, kriminalitatea prebenitzeko eskuhartze psikosozial goiztiarraren zereginari buruzkoa*

Riadeko Zuzentarauak kontuan hartuta, Estatu kideei beren barne-ordenamenduetan adingabeek delituzko jokabideak behin eta berriz izateko probabilitatea murriztera bideratutako estrategia batzuk sartzeko eskatu zitzairen, eragina duten arrisku-faktoreen gain jardunez (inguruabar sozioekonomikoak, demografikoak edo kulturalak), izaera psikosozialeko neurriak erabiliz, ikasteko zailtasunen, familia eremuko abusu eta zabarkeriaren, eskola arazoaren, arrazakeriaren eta ingurune arazotsuen aurka eginez (Pérez Vaquero, 2014).

7) *Gomendioa (2003) 20, 2003ko irailaren 24koa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearena, gazte delinkuentzia tratatzeko modu berriei eta gazte-justiziaren funtzioari buruzkoa*

Gomendio honek, adinez nagusiak izan gabe, erantzukizun penala izateko adinera iritsi eta egintza zigorgarriren bat burutu duten adingabeei egiten die erreferentzia. Ohiko zigor-arloko sistemek gazte delitugileen tratamendurako zuten ezgaitasunean oinarrituta, adingabeen justizia sistemaren “ikuskerako estrategikoago” baten beharra nabarmentzen da, zeina gazte delinkuentzia prebenitzeko estrategiaren parte izango den eta zeinak hiru helburu nagusi izango dituen: gazte delinkuentzia eta berrerortzea prebenitzea, delitugileen birgizarteratzea eta birgaitzea lortzea eta biktimen behar eta interesari erantzutea. Guzti hau lortzeko, paper berezia esleitzen die adingabeen hurbileko eragileei, hau da, familia, eskola, komunitate eta abarri; gainera, eragile horien eta erakunde publikoen jardueren koordinazioa gomendatzen da (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Pérez Vaquero, 2014).

NBEren arabera adingabeei aplikagarri zaizkien eskubide eta bermeak errespetatuz, Gomendio honek zenbait neurri hartzea aholkatzen du: delinkuentzia larri, bortitz eta ohikoaren aurkako zehapen berriak ezartzea, betiere proportzionaltasunaren barruan; prozedura penalaren aurrean neurri alternatiboen aplikazioa, adingabeek askatasunez erantzukizuna onartzean; justizia-leheneratzaileari dagozkion neurrien aplikazioan guraso edo legezko tutoreen parte-hartzearen sustapena; zehapenak adingabearen adina eta heldutasuna kontuan hartuz aplikatzea; edota neurri askatasun-gabetzaileen ordezkari baldintzapeko askatasuna, irteera baimenak edo zentro irekiak erabiltzea. Neurri guzti hauen aplikazioa heldu gazteei ere (18 eta 21 urte bitarteko helduei) zabaltzea gomendatzen da epaileek heldu bezala tratatu ezin direla uste dutenean (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Pérez Vaquero, 2014).

8) *Gomendioa (2006) 2, Ministroen Batzordearena, Europako Espetxe Arauei buruzkoa*

Gomendio hau Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onartu zuen 2006ko urtarrilaren 11n. Estatu kideen Gobernuari beren legegintzan adingabeei dagozkien printzipio batzuk jarraitzea gomendatzen die:

- 18 urte baino gutxiagoko adingabeak ezingo dira helduen espetxeetan atxilotuta egon, horretarako sortutako establezimenduetan baizik. Salbuespenez espetxeratzen dituztenean, haien egoera eta beharrianak arau berezi batzuen arabera arautuko dira (11.1 eta 11.2 arauak) (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).
- 18 urtetik beherakoak salbuespen gisa helduen espetxe batean atxilotuta daudenean, agintariek atxilotuei eskainitako zerbitzuak ez ezik, gizarte-, psikologia- eta hezkuntza-zerbitzuak ere baliatu ahal izatea zainduko dute, baita adingabeek kanpoan dituzten erlijio-zaintzak eta aisialdi-programak ere (35.1 araua). Derrigorrezko eskolatze-adinean dagoen adingabe atxilotu orok izango du horretarako sarbidea (35.2 araua). Espetxetik askatutako adingabeei laguntza gehigarria eman behar zaie (35.3 araua). Espetxean zeuden adingabe atxilotuak eremu batean bizi beharko dira, helduenetik bereizita, betiere hori haurraren interesaren aurkakoa ez bada (35.4 araua) (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).
- Atxilotuen talde espezifikoekin lan egin behar duten langileek (atzeritarrak, emakumeak, adingabeak edo gaixo mentalak) prestakuntza espezifikoa jasoko dute beren lan espezializaturako (81.3 araua).

9) *Gomendioa (2008) 11, Ministroen Batzordearena, zehapenak edo neurriak ezartzen zaizkien arau-hausle adingabeentzako Europako arauak*

Gomendio hau Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onartu zuen 2008ko azaroaren 5ean. Zehapen edo neurrien mende dauden arau-hausle adingabeen eskubideak eta segurtasuna babestea eta, komunitatean aplikatutako edo askatasunaz gabetzen duten zehapen edo neurrien mende daudenean, haien ongizate fisiko, psikiko eta soziala sustatzea da arau hauen helburua (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Düinkel & Castro Morales, 2012) (Pérez Vaquero, 2014).

Zortzi zatitan estrukturatzen dira arauak: lehena, printzipio orokor, eremu eta definizioei buruzkoa (1-22); bigarrena, zehapen eta neurri komunitarioei buruzkoa (23-48); hirugarrena, askatasun-gabetzeari buruzkoa (49-119); laugarrena, gomendio eta aholkularitza juridikoari buruzkoa (120); bosgarrena, kexa prozedurei, inspektzioei eta kontrolei buruzkoa (121-126); seigarrena, pertsonalari buruzkoa (127-134); zazpigarrena,

ebaluazioari, ikerketari, komunikabideekin eta publikoarekin lan egiteari buruzkoa (135-141), eta, zortzigarrena, arauen eguneratzeari buruzkoa (142) (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Dünkel & Castro Morales, 2012).

Hauek dira arauen printzipio orokorrak (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Dünkel & Castro Morales, 2012) (Pérez Vaquero, 2014):

- Zehapen edo neurrien menpe dauden adingabeen giza eskubideak errespetatu egin behar dira.
- Adingabeei aplikagarri zaizkien zehapen edo neurriak eta hauen exekuzioa Legean aurreikusita egon beharko dira. Halaber, gizarteratze eta hezkuntza printzipioetan eta berrerortzearen prebentzioan oinarritu beharko dira.
- Zehapenak eta neurriak organo jurisdikzional batek ezarri beharko ditu; legez aitortutako beste autoritate batek ezarriz gero, kontrol judizial zabala egin beharko zaie. Beharrezko gutxieneko denboraz eta helburu legitimoan oinarrituz aplikatu beharko dira.
- Delitu bat burutzeagatiko neurri eta zehapenak ezartzeko gutxieneko adina Legean finkatu beharko da eta ezingo da baxuegia izan.
- Zehapen eta neurrien aplikazioa bidegabearen interes gorenean oinarrituko da eta proportzionaltasun eta indibidualtasun printzipioek mugatuko dute.
- Zehapenen eta neurrien betearazpenaren ardura duten agintaritzek diskrezionalitate-maila nahikoa izan beharko dute, exekuzioa kasu bakoitzaren inguruabar berezietara egokituz ezingo baita tratamendu-desberdintasun larriak sortu.
- Zehapen edo neurriek ez dute menpeko adingaberik umiliatuko.
- Zehapen edo neurriak ezingo dira haien izaera atsekabetsua larriagotzeko moduan edo kalte fisiko edo mentalak edukitzeko arrisku bidegabea eragiteko moduan gauzatu.
- Zehapen edo neurriak atzerapen bidegaberik gabe eta soilik behar-beharrezko luzapen eta epean gauzatu beharko dira (gutxieneko esku-hartzearen printzipioa).
- Adingabeen askatasun-gabetzea azken errekurtsio moduan ezarri eta beharrezko epe laburrenean gauzatuko da. Kautelazko barneratzearen erabilera ekiditeko ahalegina egin behar da.

- Zehapen edo neurriak sexuagatiko, arrazagatiko, koloreagatiko, hizkuntzagatiko, erlijioagatiko, orientazio sexualagatiko, politika edo beste gai bati buruzko iritziagatiko, jatorri nazional edo sozialagatiko, minoria sozialekin asoziatzeagatiko, estatus ekonomikoagatiko, jaiotzatiko estatusagatiko edo beste mota bateko estatusagatiko diskriminaziorik gabe ezarri beharko dira (diskriminazio ezaren printzipioa).
- Bitartekaritza eta gainontzeko neurri leheneratzaileak sustatu egin beharko dira adingabeen tratamenduaren fase orotan.
- Adingabeen justizia sistema orok adingabeek zehapenak edo neurriak ezartzeari eta betearazteari buruzko prozeduretan parte-hartze eraginkorra dutela ziurtatu beharko du. Adingabeek zigor-arloko arau orokorrek arau-hausle helduei aitortutako eskubide eta berme berdinak izango dituzte, ez gutxiago.
- Adingabeen justizia sistema orok gurasoen eta legezko zaintzaileen eskubideak eta erantzukizunak kontuan hartu beharko ditu, eta prozeduran eta neurrien edo zehapenen betearazpenean inplikatu beharko ditu, hori adingabearen interes gorenarekin bat ez datorrenean salbu. Arau-hauslea adin-nagusitasunera iristen denean, gurasoen eta legezko zaintzaileen parte-hartzea ez da nahitaezkoa izango.
- Adingabeen justizia sistema orok diziplina anitzeko ikuskera izango du, agentzia eta erakunde publikoen parte-hartze pluralarekin eta adingabeentzako gizarte-ekimen zabalekin integratuta egon beharko du, adingabe horiei abordatze global bat eta tratamenduaren jarraipena ziurtatzeko (komunitatearen parte-hartzearen eta tratamendu jarraituaren printzipioak).
- Prozeduraren fase guztietan adingabearen pribatutasunerako eskubidea errespetatuko da. Adingabearen identitatea eta haiei edo familiei buruzko informazioa ezingo zaio beratu ezagutzeko Legez baimenduta ez dagoen inori eman.
- Adin nagusiak diren heldu-gazteak adingabe gisa aitortuak eta tratatuak izan daitezke, hala dagokionean.
- Adingabeekin lan egiten duen pertsonal guztiak zerbitzu publiko garrantzitsua burutzen du. Langileen aukeraketa, formazio berezi eta lan baldintzek adingabeen behar bereziak asetzeko estandar egokiak eta jokabide-eredu positiboak emateko gai direla ziurtatu beharko du.

- Adingabeen bizitzetan egindako esku-hartzeak positiboak direla ziurtatzeko beharrezko baliabide material eta pertsonalak eduki beharko dira. Baliabide horien faltak ezingo du adingabeen giza eskubideen urraketarik justifikatu.
- Zehapen edo neurri ororen betearazpena ikuskapen publiko erregularren eta kontrol independenteen mende egongo da.

2.2.3.2. Europar Batasuna

1) *Haurren Eskubideen Europako Gutuna (1992)*

1992an Haurren Eskubideen Europako Gutunak 18 urteko gutxieneko adina ezarri zuen, erantzukizun penala eskatzeko (7.2 atala). Era berean, legez kanpoko edo arbitrariotasunez atxilotua edo komunikatua ez izateko eskubidea eta segurtasun juridikorako eskubidea aldarrikatu zituen, baita delitu baten ustezko egile izateagatiko prozedura erregular baten bermeetarako eskubidea eta langile espezializatuek gauzatutako tratamendu egokirako eskubidea ere, berresteko eta ondoren gizarteratzeko helburuak lortzeko asmoz, helduen espetxean sartzearen aurka agertuz (8.22 eta 8.23 atalak) (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

2) *Kontseiluaren 2009/902/JBA Erabakia, 2009ko azaroaren 30ekoa, Delinkuentziaren Prebentziorako Sare Europarra sortzen duena eta Kontseiluaren 2001/427/JBA erabakia ordeztzen duena*

2001/427/JBA Erabakiak, 2001eko maiatzaren 28koak, Delinkuentziaren Prebentziorako Sare Europarra (*European Crime Prevention Network*) sortu zuen Tamperen (Finlandian) ospatutako Kontseiluan ezarritako lehentasunen ondorioz; izan ere, bertan gazte delinkuentziaren, hiriko delinkuentziaren eta drogarekin lotutako delinkuentziaren aurka borrokatzea onartu zen. Helburu hori lortzeko, Estatu Kideek prebentzioaren inguruko informazioa, esperientziak, azterketak eta ikerketak trukatzeko ahalbidetuko zukeen prebentzio-sistema baten beharra onartu zuten, delinkuentzia eta hiritarren segurtasun-gabezia sentsazioak murrizteko asmoz (Pérez Vaquero, 2014).

2009/902/JBA Erabakiak, 2009ko azaroaren 30ekoak, aurreko erregulazioa indargabetu egin zuen eta Sarea finkatzeaz gain, EBk delinkuentziaren prebentziorako zuen estrategia kontuan hartuz, Batasunaren eremuan delinkuentziaren prebentzioaren alderdi

ezberdinen garapenean lagundu zuen eta maila nazional eta lokalean egindako prebentzio-jarduerak babestu zituen (Pérez Vaquero, 2014).

3) *Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena, 2006ko martxoaren 15ekoa, gazte delinkuentziaren prebentzioari, gazte delinkuentziaren tratamendu moduei eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen zereginari buruzkoa*

Gazte delinkuentziaren prebentzioari, gazte delinkuentziaren tratamendu moduei eta adingabeen justiziak EBn duen zereginari buruzko EEGKren Irizpena Bruselan onartu zen 2006ko martxoaren 15ean. Gazte delinkuentziaren aurkako estrategia komuna diseinatzearen alde agertu zen, izan ere, gazte delitugileez gain esku-hartzeak eta birgizarteratzeko ahalegina egiteak etorkizuneko delinkuentzia heldua prebenitzea ekar dezake. Estrategiak hiru oinarri izan behar ditu (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Pérez Vaquero, 2014):

- Prebentzioa.
- Neurri zehatzaile-hezitzaileak.
- Adingabe eta gazte delitugileen integrazioa eta birgizarteratzea.

Prebentzioa lehen oinarria da eta diziplina anitzetan ez ezik, erakunde anitzetan ere lan egitea eskatzen du, asko eta ezberdinak baitira modu koordinatuan lagundu behar duten erakunde eta autoritateak (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

Neurri zehatzaileei dagokienez, dagoeneko finkatuta dauden printzipioetan oinarrituta eta justizia-leheneratzaileko proposamen berriekin konbinatuta, Europan erantzukizun-ereduak izandako hedapenak bertako gazteen eta adingabeen justizia eraldatu duela uste du Komiteak; izan ere, zehapen ez-zigortzaileek lekua irabazi dute (komunitateari emandako zerbitzuak, konpentsazio eta konponketak, biktimarekiko edo jatorrizko komunitatearekiko bitartekaritzak, praktiketako lanbide-heziketak edo droga menpekotasunerako eta mendekotasuna eragiten duten beste nahasmendu batzuetarako tratamendu bereziak); hala ere, kontrako joerak ere hauteman dira Europako herrialde batzuetan, bereziki adingabeen delitu-fenomeno berrien aurrean, adingabeen zigor zuzenbidea gogortzea eta erregimen itxian barneratzea izan ohi baitira erabilitako neurriak, aldi batean behintzat (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

Integrazioari eta birgizarteratzeari erreparatuz, Irizpenak, gizarte konpromisoa sustatzea ezinbestekotzat jotzen duenak, maila horretan hartu beharreko politika komunitarioek erakunde sindikal eta enpresarialeiei lekua ematea defendatzen du, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden adingabeen integrazioa, birgizarteratzea eta laneratzea posible egingo duten bideak ezartzeko hauek dituzten elkarrizketa bideak aprobetxatuz (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

4) *Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2007ko ekainaren 21ekoa, gazte delinkuentziari buruzkoa*

Europako Parlamentuak 2007ko ekainaren 21ean onartu zuen gazte delinkuentziari, emakumeen, familiaren eta gizartearen paperari buruzko ebazpena. Ebazpen honetan ere, Estatu kide guztiak edukiaren inguruko pautak batzuk jarraitzera gonbidatzen dira eta gazte delinkuentziari modu eraginkorrean aurre egiteko, nazio- zein Europa-mailan, estrategia integratu bat behar dela nabarmentzen da. Estrategia horrek hiru ildotan oinarritutako neurriak konbinatu beharko ditu: prebentzio-neurriak, neurri judizial eta ez judizialak eta gazte guztiak gizarteratzeko neurriak (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

Pérez Vaquerok (2014) honela laburbiltzen ditu maila bakoitzean hartu beharreko neurriak:

Nazio-mailan

- Nazio bakoitzaren estrategia gizarteko partaide guztien esku-hartze kontuan hartuz egin behar da, horretarako, baliabide nahikoa izatea nahitaezkoztat joz; balio sozial eta zibikoak transmititzen eta gazteak haurtzarotik modu egokian gizarteratzen lagunduko duen politika integratu eta eraginkor bat sortuz.
- Gazte delinkuentziaren prebentzioak beste arlo batzuetako politika publikoak eskatzen ditu (etxebizitza, enplegua, formazio-profesionala, denbora librearen okupazioa eta gazte-trukeak), arazo ekonomiko eta sozialak dituzten familiei arreta berezia eskainiz.
- Ikastetxeetako aholkularitza psikologiko eta soziala eta laguntza medikoa areagotu egin behar dira, gizarte-langile batez, soziologo-kriminologo batez eta haurren psikologo batez osatutako taldeak txertatuz.

- Zehapenetan oinarritutako pedagogia beharrean, elkartasun eta prebentzioan oinarritutako pedagogia bat garatzeko formazioa jaso behar dute irakasleek, arau-hausle eta biktimei etiketak jartzea eta hauek marjinatzea ekiditeko asmoz.
- Telebistaren programazioari buruzko eta adingabeentzat desegokiak diren eszenei buruzko legediaren aplikazio hertsia egin behar da; izan ere, komunikabideek fenomeno honen prebentzioan rol garrantzitsua dute.
- Herrialde bakoitzak barneratzearen alternatiba gisa izaera pedagogikoko neurriak aurreikusi behar ditu, zeinak epaileek erabili ahal izango dituzten.
- Estatu kideak beren politika nazionaletan urtebeteko guraso-baimena aurreikustera bultzatzen ditu, hala nahi duten familiek beren semearen lehen hezkuntza lehenetsi ahal izan dezaten; izan ere, horrek berebiziko garrantzia du beren garapen afektiboan.

Europa-mailan

- Gazte delinkuentziaren arloan eta Europako Batzordearekin bat eginez, bizkortasunez Estatu kide guztientzat aipatutako ildoetan oinarritutako gutxieneko pautak eta jarraibideak ezartzea gomendatzen da.
- Europako ikuspegi erkide hori lortzeko helburua gazte-delinkuentzia ebazteko eta kudeatzeko esku-hartze ereduak egitea izan behar da; espetxeratze-neurriak eta zigor-zehapenak, berriz, azken baliabidea izan behar dute, eta guztiz beharrezkotzat jotzen den kasuetan soilik aplikatu behar dira.
- Gazteengan eragina duten gaiak eta erabaki guztietan haien partehartzea ezinbestekoa da soluzio eraginkorrak bilatzeko.
- Europako Batzordeak Estatu ideen estatistikak konparatu ahal izateko irizpideak zehaztu beharko ditu, Europa-mailan neurriak hartu ahal izateko.
- Ezinbestekoa da, gazte delinkuentziaren biktima diren haur desagertuen kasuak ikertzeari eta ebazteari dagokionez, nazio- eta erkidego-mailako agintaritzak judizial eta polizial guztien arteko lankidetzak eta komunikazioa estutzea.
- Gazte delinkuentzia prebenitzeko beharrezkoa ikusten da arazoak dituzten haur eta gazte ororentzat erkidego-mailako telefono bat ezartzea.

- Zenbait praktika eta zerbitzu biltzen dituen batera finantzaturako ekintzen programa bat ezartzea komeni da, zeinak haurraren interes gorena errespetatu beharko duen.

5) *2016/800/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko maiatzaren 11koa, zigor-arloko prozesuetan susmopean edo akusatuta dauden adingabeen berme prozesalei buruzkoa*

2016ko maiatzaren 11n onartu zuten Europako Parlamentu eta Kontseiluak prozesu penaletan edo entregatzeko Europako agindu bati lotutako prozesuetan adingabe susmagarri edo akusatuen eskubide prozesalak babesteko gutxieneko arau komunak ezartzeko helburuarekin, prozesu horiek behar bezala ulertu eta jarraitu ahal izan ditzaten, eta bidezko epaiketa bat izateko eskubidea egikaritu, berrerortzea prebenitu eta gizarteratzea sustatu ahal izan dezaten (Jiménez Arroyo, 2017).

HEHren 1. artikuluari jarraiki, Zuzentarauak adin nagusitasuna 18 urtetan finkatzen du. Haatik, egozgarritasunerako gutxieneko adinari buruz ez du ezer esaten, berau zehazteko ardura Estatu kideei igorritz. 18 eta 21 urte bitarteko gazte helduei dagokienez, Estatu kideen esku uzten du Zuzentaraan xedatutako eskubideak aplikatzeko ala ez aplikatzeko erabakia (Jiménez Arroyo, 2017).

Bereziki, zuzentarauak jasotzen dituen eskubideak, funtsean, honako hauek dira: informazio zabala izateko eskubidea, guraso-ahalaren titularrari informazio hori ematea barne, abokatu-laguntzarako eta doako laguntza juridikorako eskubidea, banakako ebaluaziorako eta mediku-azterketarako eskubidea, polizia-galdeketak ikus-entzunezko medioen bitartez grabatzeko eskubidea, gaiak azkar eta arduraz izapidetzeko eskubidea, ekitatezko prozesuaren eskakizunak eta adingabearen interes gorenaren printzipioa errespetatuz. Gainera, zuzentarauak askatasun-gabetzeari buruzko berme espezifiko batzuk jasotzen ditu, askatasun-gabetzea soilik iraupen mugatuarekin eta arrazoizko tarteetan aldizkako berrikuspenak eginez erabil daitekeen azken baliabidetzat hartuz (Jiménez Arroyo, 2017).

2.2.4. Espainiako araudia: aurrekariak

2.2.4.1. Konstituzio aurreko legedi espainiarra

XX. mendean hasi zen Espainian, nazioarteko araudia kontuan hartuz, adingabeen inguruko erregulazio garrantzitsua garatzen. Garaian emandako industria iraultzak eta prozesu penalak zuen joera gizatiarragoak justifikatu zuten adingabeen justizia espezializatuaren sorrera. Horren erakusgarri dira hain zuzen lege hauek:

1) 1918ko abuztuaren 2ko Oinarrien Legea

1918ko azaroaren 25eko Errege Dekretuaren bitartez promulgatutako Lege hau izan zen Espainian haurrentzako lehen auzitegiak eratu zituena. Lurraldearen arabera antolatu ziren, probintzien hiriburuetan eta adingabeen tratamendurako zentroak zeuden beste hiri batzuetan. Lege ekimen honen bidez ez ziren epaitegi asko sortu, baina, adingabeentzako jurisdikzio berezi baten ezarpena suposatu zuenez gero, garrantzitsua izan zen. adingabe eta helduen justizia penalarren arteko bereizketa eragin zuen, irizpide kronologiko eta biologikoa kontuan hartuz. Tutoretza-eredu honetan, ezinezkoa zen adingabeei helduen zigorrak ezartzea eta zehapen arinagoak aplikatzen zitzaizkien (Martínez Taboas, 2012).

1870eko Zigor Kodeari jarraiki, 15 urtetik beheragoko adingabeek burututako delitu edo faltak ezagutzeko eskumena zuten auzitegiek. Beranduago, 1929ko otsailaren 3ko Legearen ondorioz, Haurren Auzitegien zenbait aspektu erreformatu ziren, horien artean eskumena, izan ere 1928ko Zigor Kodeak adin-nagusitasun penala 16 urtera igo zuen eta horretara egokitu beharra zegoen. Horrez gain, auzitegien izena ere aldatu zen eta “Haurren Auzitegi” izatetik “Adingabeen Tutoretza Auzitegi” izatera pasatu ziren (Martínez Taboas, 2012).

Antolaketa zegoenez, Lehendakaria lehen instantziako epaile bat zen, nahiz eta Grazia eta Justizia Ministerioak kargu hori egikaritzeko justizia karreratik at zegoen pertsona bat izendatzeko aukera zuen. Idazkari postua lehen instantziako epaitegiko homologoak betetzen zuen eta bi Bokalak administrazioak aukeratzen zituen. Kargu horiek ez zuten ordainsaririk eta ohiko lanarekin bateragarriak ziren. Auzitegien egiturari erreparatuz, justizia administrazio hauetako kideak helduen justizia arruntekoak ziren, baina horrek ez zuen adingabeei zigor berberak aplikatzea ahalbidetzen (Martínez Taboas, 2012).

Auzitegian hartutako erabakien aurkako apelazioa Gobernazio Ministerioaren menpe zegoen Haurren Babeserako Kontseilu Gorenaren aurrean aurkez zitekeen, auzitegien izaera administratiboa finkatuz. Defentsaren egikaritzea auzitegiak edo adingabearen esku zegoen, prozesuan abokatu defendatzailearen eta Ministerio Fiskalaren jarduna ez baitzen onartzen (Martínez Taboas, 2012).

Bi oinarrizko funtzio esleitzen zizkion legeak auzitegiari: erreformatzailea eta babeslea. Funtzio hauek abandonatutako eta babesik gabeko haur eta gazteen gain ere betetzen ziren (Martínez Taboas, 2012).

Organo eskudunak hartutako erabakiak akordio forma zuen eta neurri hauek barne bil zitzakeen: adingabea bere familiari, beste pertsona bati edo tutoretza-elkarte bati entregatzea edo iraupen mugatuz ongintzako establezimendu publiko edo pribatu batean barneratzea. Haurtzaroaren babeserako ordezkariari zegokion neurrien aplikazioaren iraupen osoan zehar haurraren ongizateaz arduratzea (Martínez Taboas, 2012).

Adingabeentzako ezarritako prozesuak berme juridikorik ez zuen arren, legearen alderdi asko ondoren egindako erregulazioaren parte izatera pasatu ziren. Hutsune hauek alde batera utzita, Lege honek 15 urtetik beheragoko eta goragoko pertsonen arteko bereizketa egitea ahalbidetu zuen, adingabeak helduekin espetxeratzea ekidinez eta ezarri beharreko neurriak haiei egokituz (Martínez Taboas, 2012).

2) *1948ko Adingabeen Tutoretza Auzitegien Legea*

1948ko ekainaren 11ko Dekretuaren bidez onartu ziren Adingabeen Tutoretza Auzitegien Legea (ATAL) eta bere Erregelamendua. Honek, Adingabeen Epaitegien Eskumena eta Prozedura arautzen zituen 4/1992 Legea arte indarrean egondako adingabeen jurisdikzio berezia sortu zuen Espainian. Legeak ez zituen 16 urte baino gutxiagoko adingabeak beren ekintzen arduradun kontsideratzen, lagundu edo tratatu beharreko gaixo gisa ikusten baitzituen (Coy & Torrente, 1997) (Martínez Taboas, 2012).

Auzitegien izaera administratiboa mantendu egin zen, baita paternalista ere. Justizia Ministerioak izendatutako eta Adingabeen Babeserako Kontseilu Gorenaren menpeko kideez osatuta zeuden. Kide horiei ezaugarri zehatz batzuk eskatzen zitzaizkien, hala nola, “akatsik gabeko moraltasun eta bizitza familiarra” eta “agindutako babes-

eginkizuna betetzeko ezagutza tekniko egokiak” izatea. Hala ere, askotan, ez ziren baldintza horiek errespetatzen eta kideek ez zuten zuzenbidearen inguruko ezagutzarik (Martínez Taboas, 2012).

Hiru funtzio ezberdin zituzten auzitegiek (Coy & Torrente, 1997):

1. Erreformatzeko-ahalmena, honako hauetara hedatzen zena:
 - a. 16 urtetik beherako adingabeek burututako delitu edo faltatzat jotako egite edo ez-egiteak.
 - b. 16 urtetik beherako adingabeek burututako arau-haustea, udal edo probintzia legeetan jasota zeudenean.
 - c. 16 urtetik beherako adingabe prostituitu, lizun, alfer edo arloteak.
 - d. Gurasoek salatutako disziplinarik gabeko adingabeak.
2. Adin-nagusien epaiketa: Auzitegiek garaiko ZKko 584. artikuluan jasotako faltak ezagutzeko eskumena zuten.
3. Babes-ahalmena: 16 urtetik beherako adingabeei babes juridikoa ematea, gurasoei beren zaintza eta hezkuntza kenduz.

Ikus daitekeenez, ATALek irizpide kronologikoa mantentzen du adingabeen egozgarritasuna zehazteko (16 urte baino gutxiago). Gainera, erreformatzeko-ahalmena babestekoa baino zabalagoa zela agerikoa zen, prebentzio- eta hezkuntza-irizpideak bigarren plano batean utzi eta izaera zuzentzaile eta zigortzailea nabarmenduz. Ahalmen zabal hau adingabe delitugileei aplikatzeaz gain, portaera irregularrak zituztenei ere aplikatzen zitzairen (alferrei, arloteei, etab.) . Ondorio juridiko berdina zuten denek, babes zuzentzailea (Coy & Torrente, 1997). Ez zen arrisku egoeran zeuden adingabeen eta delituren bat burutzen zutenen arteko bereizketarik egiten, hau da, nahiz eta portaera eta larritasun oso ezberdinak izan, modu berean zehatuak izan zitezkeen (Martínez Taboas, 2012).

Egoera irregularreko adingabeak kondenatzeko aukera zuen epaileak, zeinak, sistema inkisitibo baten baitan, organo-akusatzaile eta -erabakitzzaile gisa jarduten zuen. Sistema honetan adingabeei ez zitzaizkien helduen zigor zuzenbidean ezarritako gutxieneko berme prozesalak onartzen eta neurriak inolako bereizketarik egin gabe ezartzen zitzaizkien adingabe babesgabe eta delitugileei (Martínez Taboas, 2012).

Auzitegiek erabakitako zehapen horiek akordioen bitartez igortzen ziren, eta, erreforma-ahalmena erabiliz, neurri ezberdinak ezar zitzaketen, hala nola (Martínez Taboas, 2012):

- Ohartarazpena edo barneratze arina.
- Zaintzapeko askatasuna.
- Beste pertsona baten zaintzapean jartzea.
- Establezimendu ofizial edo pribatuan sartzea, behaketarako, heziketarako, erreformatzeko edo zuzentzeko edo erdi-askatasunerako.
- Ezohiko adingabeentzako establezimendu berezi batean barneratzea.

Esan bezala, indarrean zegoen sistemak ez zituen gutxieneko berme juridikoak errespetatzen, izan ere Tutoretza Auzitegien prozesua ez zen egiazko prozesu jurisdikzional moduan ikusten, babeserako prozesu moduan baizik. Pentsamolde horretatik ondorioztatzen zen, adibidez, publikotasun printzipioaren falta. ATALek bere 15. artikuluan espreski debeketzen zuen saioen publikotasuna. Horrez gain, abokatu defendatzailearen eta Ministerio Fiskalaren jarduerak ere ez ziren aurreikusten, adingabearen defentsaren egikaritzea eta epaitza auzitegiaren esku utziz. Kontraesan printzipiorik ere ez zegoen, epaileak adingabea entzun gabe epaitzen, defendatzen eta erabakitzen baitzuen (Martínez Taboas, 2012).

Modu berean, legezkotasun eta tipikotasun printzipioak ere ez ziren errespetatzen eta, epaileak motibatzeke beharrik ez zuenez gero, ezinezkoa egiten zen erabakiak errekurritzea (Martínez Taboas, 2012).

2.2.4.2. Konstituzio ondorengo legedi espainiarra

Espainiako Konstituzioaren (EK) onarpenaren ondoren, tutoretza-ereduaren berezko erakunde batzuen eta Konstituzioak ezarritako oinarriko printzipio eta berme berrien arteko bateraezintasuna nabarmena zen. Adingabeen Zigor Zuzenbideari zegokionean, ordura arte indarrean zeuden arauetan aldaketak egitea beharrezkoa zen EKK ezartzen zuen sistema berriarekin bat etor zitezen. Mailakako aldaketa hau, alde batetik, oinarri konstituzional berrietara egokitutako lege-testu berrien erreforma eta aldarrikapenaren bitartez eta, bestetik, Botere Judizialaren organo ezberdinen interpretazio-lanaren bitartez, bereziki Konstituzio Auzitegiarenaren bitartez, egin zen (Aranda Jurado, 2021).

Hala ere, ezinbesteko egokitzapen hau ez zen bizkortasunez egin, adingabeen berme penalak ez baitziren legegilearentzat lehentasun izan.

1) *Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, 1985eko uztailaren 1ekoa (BJLO)*

Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa bi jurisdikzio-organo garrantzitsu sortu zituen, Espainiako sistema judizialean sartu zirenak: Adingabeen Epaitegiak, probintziako hiriburuetan kokatuak, hargatik beste barruti judizial batzuetan ezartzea eragotzi gabe, lan-bolumenak hala aholkatzen zuenean; eta Adingabeen Epaitegi Zentrala, egoitza Madril duena, estatuko lurralde osoan eskumena duena. Era berean, aipatutako xedapenak, orokorrean bada ere, horietako bakoitzaren eskumena adierazten zuen. Horrela, lehenengoei dagokie adingabeek egindako delitu eta hutsegite gisa tipifikatutako jokabideen berri izatea, eta bigarrenari dagokionez, adingabeen zigor-legeriak egozten dizkion kausak adieraziko lirateke (Martínez Taboas, 2012).

Lege Organikoa hau izan zen adingabeen arloan legezketasun- eta tipikotasun-printzipioen aplikazioa ezarri zuena, zeina ATALekin kontraesanetan zegoen, honek Adingabeen Tutoretza Auzitegien eskumena 16 urtetik beherako ume prostituitu, lizun, alfer eta arloteen kasuetara hedatzen baitzuen, baldin eta, kasuan kasuko auzitegiaren iritziz, erreformatzeko ahalmena erabiltzea eskatzen bazuten, garai hartako gizarte-arriskugarritasunari buruzko legeriarekin guztiz bat etorriz (Ornosa Fernández, 2003).

Legearen 4. Xedapen Iragakorrean Adingabeen Tutoretza Auzitegien ordez Adingabeen Epaitegien ezarpena aurreikusten zen. Horregatik, Mugapen eta Planta Judizialari buruzko 38/1988 Legeak, abenduaren 28koak, Adingabeen 70 Epaitegiren sorrera xedatzen zuen, zeina soilik lan-bolumen handia zegoen hirietan egin zen (guztira 38 hiritan). Honen ondorioz, gaur egungo araudia indarrean sartu arte, Adingabeen Epaitegiak eta Adingabeen Tutoretza Auzitegiak batera existitu ziren. 2001eko urtarrilaren 13an Adingabeen 31 Epaitegi berri hasi ziren martxan, beste guztiak Adingabeen Epaitegi bihurtutako Adingabeen Tutoretza Auzitegia baitziren (1906/2000 Errege Dekretua betez) (Ornosa Fernández, 2003).

2) *21/1987 Legea, azaroaren 11koa*

Adopzioaren arloan Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen artikulua jakin batzuk aldatzeko lege horrek beste urrats garrantzitsu bat ekarri zuen; izan ere, adopzio-sistema aldatzeaz gain, adingabeak babesteko eskumena eman zion “lurreko bakoitzean adingabeak babesteko ardura duen erakunde publikoari” (KZ 172. artikulua eta hurrengoak). Erakunde publiko hori autonomia-erkidego bakoitzak eskumena esleitutako erakundea da, eta, beraz, une horretan, auzitegiek utzi zioten adingabeak babesteko eskumenak atxikitzeari, eta “erreforma-ahalmena” deiturikoa baino ez zuten gorde, izaera penala zuena (Martín Ostos, 1994) (Ornosa Fernández, 2003).

Horrela, ordura arte indarrean zegoen tutoretza-sistemaren funtsezko aldaketa gertatu zen, eta horri esker, babesari eskatzen zuten egoera batean zeuden adingabeak ere eskubide eta bermedun subjektutzat hartu ziren, eta erakunde eskudunak baino ezin zituen babesneurriak aplikatu. Adingabeen Epaitegiek ere, adingabeek delituren bat burututakoan soilik esku hartzen hasi ziren (Martín Ostos, 1994) (Ornosa Fernández, 2003).

3) *1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabekoen babes juridikoaren ingurukoa*

Adingabeen babesari buruzko oinarritzko testua izan zen hau, zeinak Kode Zibileko 172. eta hurrengo artikuluetan zenbait aldaketa egin zituen praktikan sortutako arazoei aurre egiteko asmoz (Ornosa Fernández, 2003).

Haurren babesari sozialki eta juridikoki ziurtatzeko modurik egokiena bere autonomia eta protagonismo juridikoaren sustapena zela zen lege honen abiapuntua. Ondorioz, adingabeen eta helduen arteko harremanak Familiaren Urteak aldarrikatutako demokratizazio-printzipioaren gainean antolatu ziren (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

Legeak, gainera, haur eta nerabeen eskubideak zehaztu zituen (3. artikulua eta hurrengoak): ohorerako, bizitza pribaturako eta irudirako eskubideak (4. artikulua), informazio eskubidea (5. artikulua), ideologia askatasunerako eskubidea (7. artikulua), parte-hartzerako eskubidea, elkartzeko eta biltzeko askatasuna (7. artikulua), adierazteko askatasuna (8. artikulua), familiaren baitan eta berari dagozkion prozedimendu

administratibo eta judizial guztietan entzuna izateko eskubidea (9. artikulua) eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

Botere publikoen jarduerak adingabearen interes gorena (2. eta 11. artikulua) eta bere eskubideen defentsa izan behar ditu helburutzat beti (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010). Hori horrela, legeak autonomia-erkidegoek adingabeen babesaren arloan jarduteko dituzten bi kasu bereizten zituen (Ornosa Fernández, 2003):

- a. Adingabe bat bere garapen pertsonala edo soziala eragozten duen egoera batean dagoenean, administrazioak bere tutoretza bere gain hartzea eskatzen duten kasuetara iritsi gabe.
- b. Babes-betebeharrak betetzen ez direnean edo horiek betetzea ezinezkoa edo desegokia denean.

Adingabeak jatorrizko familia-ingurunean egon behar du posible den kasuetan, bere intereserako kaltegarria denetan izan ezik. Botere publikoek familia- eta gizarte-integrazioaren alde egin beharko dute lan beti, baina beren garapenerako kaltegarriak izan daitezkeen egoerak ekiditeaz ere arduratu beharko dira: herritarrak haurren eta nerabeen defentsa gabeziaz sentsibilizatuz, arrisku eta babesgabetasun egoeren aurka modu objektibo eta inpartzialean esku-hartuz eta, heziketaren aldeko eta diziplinarteko ikuskerarekin, beharrezko neurriak hartuz (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010).

4) *Auzitegi Konstituzionaleko Osoko Bilkuraren Sententzia, 36/1991, otsailaren 14koa*

Sententzia honek, Adingabeen hainbat Epailek aurkeztutako zenbait konstituzio-kontrakotasun auziren ondorioz, konstituzio-kontrako deklaratu zuen ATALen 15. artikulua (Ornosa Fernández, 2003).

Txostengilea Francisco Rubio Llorente izan zen eta Espainian gerora gertatu zen bilakaeraren oinarria izan zen, bai legegintzarena, baita jurisprudenziarena ere (Ornosa Fernández, 2003).

Esan bezala, ATALen 15. artikulua konstituzio-kontrako deklaratu zuen, zeinaren arabera “adingabeak zuzentzeko prozeduretan, Tutoretza Auzitegiek egiten dituzten saioak ez dira publikoak izango, eta Auzitegia ez da gainerako jurisdikzioetan indarrean dauden arau prozesalen mende egongo; izapidetzean, ematen diren ebazpenen oinarri diren egitateak zehazteko ezinbestekoa dena mugatuko da; ebazpen horiek labur idatziko dira, eta horietan zehatz-mehatz aipatuko dira hartu beharreko neurriak”.

Ebazpenaren Bigarren Oinarri Juridikoan, Konstituzio Auzitegiak (KAK) Adingabeen Epategiak epaitegi arruntak eta espezializatuak direla ulertu zuen, are gehiago, Auzitegi beraren aurreko beste epai batek, 71/1990 KAEk, Seigarren Oinarrian ulertu zuenez, espezialitate hori bateragarria da prozedurako oinarrizko bermekin, zeinak lotuta egon behar baitu jurisdikzio-jardueraren xede diren lehentasunezko interesen defentsarekin eta tutoretzarekin (Ornosa Fernández, 2003).

Hori dela eta, KAK 36/1991 Epaiaren Seigarren Oinarri juridikoan adingabeen aurkako prozesu penaletan EKren 24. artikulua ezarritako oinarrizko eskubideak errespetatu egin behar direla adierazi zuen. Horrez gain, Bostgarren Oinarri Juridikoan Adingabeen Tutoretza Auzitegien Legea eredu positibista eta korrekzional batean oinarrituta zegoela ezarri zuen; eredu horren arabera, adingabeak ez dira burututako egintzen arduradunak izango eta ezingo zaizkie beste jurisdikzioetan aplikatzen diren berme juridikoak aplikatu, zigor edo zehapen kontsideratutako izaera errepresibodun neurriak aplikatzea ezinezkoa dela uste baitu. Esandako guztiaren ondorioz, KAK ATALren 15. artikulua berdintasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak (EK 14. eta 9.3 artikulua) eta berme prozesalen sistema (EK 24. artikulua) bortxatzen zituela ulertu zuen (Ornosa Fernández, 2003).

Konstituzio-kontrakotasun honen deklarazioak garaiko Adingabeen Auzitegi eta Epategiak prozedura aplikagarri gabe utzi zituen. Arazo horri aurre egiteko, Konstituzio Auzitegiak berak behin-behineko soluzio bat eskaini zuen: errespetatu beharreko oinarrizko berme eta printzipioak ezarri zituen, baina hori ez zen nahikoa praktikarako eta prozesuan ematen diren izapideak garatzeko, beraz, Adingabeen Epategien karguan zeuden Epailleek EKK 117. artikuluan ezarritako funtzioak gainditu beharko zituzten; izan ere, epaitzeaz eta epaitutakoa exekutatzeaz gain, arau guzti horien araberrako prozedura simple bat diseinatu behar zuten. Prozedura berri horretan ere, Fiskalek ez zuten parte

hartzen, hauek, legean zehazki xedatuta ez zegoenez, beren jarduketa ezinezkoa zela ulertu baitzuten (Ornosa Fernández, 2003).

5) *4/1992 Lege Organikoa, ekainaren 5ekoa, Adingabeen Epaitegien Eskumena eta Prozedura arautzen dituen*

Aipatutako Sententziaren ondorio zuzena izan zen Adingabeen Epaitegien Eskumena eta Prozedura arautzen dituen 4/1992 Lege Organikoaren aldarrikapena. Lege Organiko honek, jada Zioen Azalpenean adierazten zuen moduan, premiazko erreforma izaera zuen, zeina bere berehalako jadanekotasunak berretsi zuen, Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAOn) argitaratu eta hurrengo egunean sartu baitzen indarrean (Martínez Taboas, 2012).

Arau-hauste penal gisa tipifika zitezkeen egitateak burutzen zituzten adingabeei aplikagarri zitzairen prozedura arautu zuen. Hala ere, aurreko legearen premiazko erreforma partziala izan zen. Zehazki, ATALen 9., 15., 16., 17. eta 23. artikulua erreformatu eta 5., 12., 21. eta 22. artikulua eduki gabe utzi zituen, gainontzeko guztiak indarrean utziz (Ornosa Fernández, 2003). Beraz, Lege Organiko honek aurretiaz aipatutako epaian Konstituzio Auzitegiak emandako jarraibideen pean idatzitako agindu berritzaileak eta sistema zaharkitu batetik eratorritakoak konbinatzen zituen, askotan batzuen eta besteen arteko talka eraginez (Martínez Taboas, 2012).

Legegilea legearen murriztasunak eragindako hutsune prozesalaz jabetu zen, eta, beraz, bertatik erator zitezkeen gorabeherak konpontzeko, Prozedura Penaleko Legea eta Zigor Kodera igorpena egiteko aukera aurreikusi zuen.

4/1992 Lege Organikoa, Zioen Azalpenean Adingabeen Epaitegien jardunaren oinarri gisa ezarri zuen adingabeen interes gorena eta honek, Ornosa Fernándezen arabera (2003) alderdi positibo ugari izan zituen:

1. Lehen aldiz Adingabeen Justiziaren jardunerako 12 urteko gutxieneko adina ezarri zen. 1. artikulua arabera, adin horretatik beherako adingaberen batek delitu bat egitean, larritasuna edozein izanda ere, Autonomia Erkidego bakoitzean zegokion erakunde publikoak zuen babesteko betebeharra, haren egoera pertsonal eta familiarak hala gomendatzen zuen kasuetan, jurisdikzio penalak ez baitzuen haren gaineko eskumenik. Gehieneko adinari dagokionez, aipatutako artikulua

Zigor Kodean erantzukizun penalerako ezarritako adina ezarri zuen goi-muga bezala, 16 urte. Horrez gain, artikuluko berean, adin nagusikoek burututako Zigor Kodeko 584. artikuluko faltak ezagutzeko eskumena esleitzen zitzaien Adingabeen Epaileei, 3. zenbakikoak salbu.

2. Prozedura honela banatzen zen: Adingabeen Fiskalak egindako instrukzioa, non, gertakariak ikertzeaz gain, lantalde tekniko batek adingabearen egoera pertsonal, sozial, familiar eta hezigarriaren inguruko txostena ere egiten zen; adingabeak Epailearen aurrean deklaritzen zuen tarteko fasea eta, Fiskalak aurrera jarraitzea erabakitzen zuen kasuetan, Adingabeen Epaitegiko fasea, non, Fiskalak eta letraduak alegazio idazkiak aurkeztuta, helduen epaiketa penal baten antzeko audientzia bat egiten zen, ondoren Epaileak sententzia baten antzekoa zen erresoluzioa emateko (Entzutegi Probintzian errekurri zitekeen). Prozedura hau izan zen, nahiz eta akatsak izan, adingabeen tratamendu penala helduenaren berme eta eskubideekin parekatzeko emandako pausu garrantzitsuenetako bat.
3. Instrukzioa egiteko eta epaitzeko funtzioak banandu egin ziren eta lehena Fiskalari esleitu zitzaion. Prozedura osoan zehar zeuden aukera eta esku hartze minimoaren printzipioa, edozein momentutan jarduketak artxibatze eskaera egitea ahalbidetuz. Honetarako beharrezkoa zen Epailearen akordioa, akusazio printzipioari jarraikiz eta akusazio partikularrik ez zegoelako; gainera, Fiskalak, adingabeak egindako delituaren larritasuna edozein izanda ere, espedientea ez irekitzea erabaki zezakeen. Botere honen hedadura ikusita eta oinarritzko bermeak errespetatzeko asmoz, aukera printzipio hau erregulatzea garrantzitsua litzateke, Fiskalari bere erabakiak motibatze eskatuz eta erabakia, Epaileari ez ezik, katetuei ere komunikatzeko betebeharra ezarriz.
4. Adingabea momentu oro letraduaz lagunduta egotearen derrigorrezkotasuna aurreikusi zuen legeak, epaiketaren momentuan ez ezik, atxiloketaren eta kautelaturriak hartzeko momentuan ere. Aurreko legediarekin konparatuz, aurrerapauso handia izan zen hau. Hala ere, adingabeak deklaratzeko letraduaren presentzia aukerazkoa zen eta erabakia adingabearen eta honen legezko ordezkarien esku zegoen; horietako askok doako laguntza juridikoa izateko aukera izanda ere, oso gutxik eskatzen zuten. Horrez gain, adingabeak letraduaren bitartez instrukzio fasean egindako ikerketen berri izan behar zuen eta honen defentsarako egokiak ziren frogen praktika eska zezakeen letraduak. Gainera, psikologo, gizarte-

hezitzailez eta gizarte-langilez osatutako lantalde tekniko batek adingabeari buruzko txostena egiten zuen, zeina, adingabeari ezar zekioken neurrian zuen garrantziarengatik, letraduak hasieratik eskuragarri izan behar zuen. Lantalde teknikoak Fiskalari judizios kanpoko konponketa egiteko aukera proposa zekioken; horretarako adingabeak egitateen egikaritza onartu, eta konponketarako jarduera zehatza betetzeko konpromisoa hartu behar zuenez, gomendagarria litzateke erabakia hartzeko profesional baten aholkularitza izatea. Konponketarako jarduera horren aukera aurreikustea berrikuntza handia izan zen, izan ere, indarkeria eta larderiarik erabili ez zuten adingabe delitugileen prozesuak ekiditeko helburua izateaz gain, biktima ere prozesuan sartzeko saiakera egin zen, konponketarako aukera bat biktimaren mesederako jarduera egitea baitzen.

5. 4/1992 LOren 2.4 artikulua ATALen 17. artikulua aldatu zuen. Idazkera berri honetan gehienez 2 urtez ezar zitezkeen hainbat neurri aplikatzeko aukera aurreikusi zuen: ohartarazpena, asteburu batetik hiru astebururako barneratzea, zaintzapeko askatasuna, beste pertsona edo familia-nukleo batek hartzea, ziklomotorrak edo ibilgailu motordunak gidatzeko eskubidea kentzea, Erkidegoaren aldeko zerbitzuak ematea, tratamendu ambulatorioa edo zentro terapeutiko batean sartzea eta zentro batean erregimen irekian, erdi irekian edo itxian sartzea. Neurri hauek murrizteko, arinagoengatik ordezkatzeko edota efekturik gabe uzteko aukera zegoen, adingabearen bilakaerak hala gomendatzen zuenetan. Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera, Epaitegia zegoen Autonomia Erkidegoak horretarako aukeratutako erakundea zen neurriaren exekuzioaren arduraduna.
6. Epaileak, Fiskalak eskatuta, kautelazko-neurriak ezar zitezkeen, adingabearen behin-behineko barneratzea barne (gehienez hilabete batez, ebazpen ziodun baten bidez luzatzeko aukerarekin). Barneratze hau adingabea delitu larri baten egikaritzarengatik akusatzen zen kasuetan eta bere egoera pertsonal eta sozialarengatik gomendagarria zenean soilik aplika zitezkeen.
7. Ebazpen judizial guztiak errekurritzeko aukera mugagabea zegoen. Sententzien (legean erresoluzio deiturikoak) eta autoen kasuan, Entzutegi Probintzian 5 eguneko epean apelazio errekurtsua ezar zitezkeen; probidentziak, aldiz, erreforma errekurtsuaren bitartez errekurri zitezkeen, 3 eguneko epean.

6) *1995eko Zigor Kodea*

Zigor Kodea indarrean sartu zenean agerian geratu zen, berriz ere, 4/1992 Lege Organikoaren behin-behinekotasuna (Ornosa Fernández, 2003).

Kodeak adingabetasuna erantzukizun penaletik salbuesten duten kausen barruan aurreikusi zuen 19. artikuluan, adin nagusitasunaren muga 18 urtetan finkatuz. Horrez gain, 18 urtetik 21 urtera arteko gazteei adingabeei aplikagarri zitzaaien legedia aplikatzeko aukera ere aurreikusi zuen (De la Cuesta Arzamendi & Blanco Cordero, 2010) (Ornosa Fernández, 2003).

Hala ere, Azken Xedapenetako Zazpigarrenak berritasun garrantzitsu hau zintzilik utzi zuen, adingabeen erantzukizun penala erregulatuko zuen legea indarrean sartu arte. Ondorioz, efektu penalei zegokienez eta lege berria argitaratu arte, 16 urtetik 18 urtera arteko pertsonak heldu kontsideratzen jarraitzen zen. Horregatik, Xedapen Indargabetzaile Bakarrean aurreko Zigor Kodearen manu guztiak indargabetu ziren, honako hauek izan ezik: 8.2 artikulua, 9.3 artikulua, 20. Artikuluko lehen araua eta 65. artikulua (Ornosa Fernández, 2003).

7) *5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duena, eta honek izandako erreformak*

Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen 5/2000 Lege Organikoaren (AEPLO) bitartez, Espainiak justiziaren esparru horretan nazioarteko estandarrak (jada aipatuak) eta Zuzenbidezko Estatu izatetik eratortzen diren printzipio konstituzionalak errespetatuko dituen araudi bat gauzatu nahi du.

Printzipio inspiratzaileak

Lege Organikoaren II. Zioen Azalpenaren arabera, hauek dira lege honen printzipio orokorrak (Landrove Díaz, 2007):

- 1) Prozeduraren eta arau-hausle adingabeei aplikatu beharreko neurrien izaera formalki penala, baina materialki zehatzailea-hezitzailea; neurri horiek, aipatutako ikuspegitik, oso erreperitorio zabala osatzen dute Legean bertan.

- 2) Adingabeekin egindako esku-hartzearen izaera hezitzailea dela eta, helduen zuzenbide penalean berezkoak diren zenbait helburu baztertuak geratu ziren, hala nola, burututako portaeraren eta zehapenaren arteko proportzionaltasuna edo legearen helburuko pertsonen gain legezko-mehatxua egiteko helburua.
- 3) Eskubide konstituzionalak eta adingabearen interesaren eskakizun bereziak errespetatzetik eratorritako berme guztien esanbidezko aitorpena.
- 4) Legezkotasun printzipioaren errespetua, bai arau-hausteen deskribapenean, bai adingabe arau-hausleei aplikatu beharreko neurrien katalogoan.
- 5) Prozesu- eta zehapen-ondorioetarako, adin-tarte ezberdinak bereiztea arau-hausle adingabeen kategorian. Zalantzarik gabe, hamalau urteko gutxieneko muga ezartzen da adingabeen erantzukizun mota hori eskatzeko, eta Legearen aplikazio-eremuan bi tarte bereizten dira (14 urtetik 16 urtera eta 17 urtetik 18 urtera), talde batek eta besteak ikuspegi zientifiko-juridikotik tratamendu berezia eskatzen duten ezaugarri desberdinak dituztelako.
- 6) Malgutasuna kasu zehatzaren inguruabarrek eta zehatuaren bilakaera pertsonalak gomendatutako neurriak hartu eta exekutatzeko; adingabeen epaileari ere ahalmen zabalak ematen zaizkio ezarritako neurriak eten edo beste batzuekin ordeztzeko edo neurri horien aplikazioan eta ondorioetan adingabearen gurasoek parte har dezaten ahalbidetzeko.
- 7) Ministerio Fiskalaren protagonismoa. Adingabearen babes-funtzioa eta, aldi berean, akusazio-funtzioa egiteko betebeharra esleitzen zaio, posizio anibalente batean kokatuz.
- 8) Lege Organikoaren jatorrizko idazkerak asko mugatzen zuen biktimek jarduera prozesalean parte hartzeko zuten aukera; izan ere, adingabeen delinkuentziari dagokionez, ez zen beharrezkoa ikusten partikularrei alderdi akusatzaile gisa jarduteko eskubidea aitortzea. Horregatik, adingabeen jurisdikzioan ez zen partikularren eta hiritarren jarduera onartzen, gizartearen eta Estatuaren interesak haurren interes gorenarekin bat egiten zuela ulertzen baitzen.
- 9) Adingabeen erreformarekin eta babesarekin lotutako erakunde autonomikoen eskumena, epaian ezarritako neurriak betearazteko.
- 10) Neurrien betearazpenaren kontrol judizial saihestezina.

Aplikazio-eremu subjektiboa

Legea 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako pertsoneri Zigor Kodean edo lege berezietan delitu gisa tipifikatutako egitateak egiteagatik erantzukizun penala eskatzeko aplikatzen da (AEPLO 1. artikulua). Beraz, 14 urteko gutxieneko muga ezartzen du legegileak egozgarritasuna edo erruduntasuna dagoela esateko. Erantzukizun penal hau helduen Zuzenbide Penalak jardutea justifikatzen duten gertaera berdinek soilik eragingo dute, hau da, Zuzenbide Penal espainiarrean ez dago adingabeentzako tipikotasun espezifikorik.

AEPLO 4. artikulua jatorrizko idazkietan 18 urtetik gorakoei eta 21 urtetik beherakoei aplikatzea kasu jakin batzuetan, instrukzio-epaileak, Fiskala, inputatuaren letradua eta lantalde teknikoa entzunda, auto bidez hala erabakitzen zuenean; hala ere, aukera hau 8/2006 LOrekin behin betiko ezabatu zen.

14 urtetik beherako gazteei aplikatutako erregimenari dagokionez, AEPLO 3. artikulua araberak, ez zaie lege hau aplikatuko, baizik eta Kode Zibilean eta gainontzeko xedapenetan adingabeen babeserako arauetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Aplikazio-eremu objektiboa

Adingabeen epaileek eskumena izango dute AEPLoren 1. artikuluan aipatutako pertsonen egindako arau-hauste penalen berri izateko eta epaiak betearazteko, hargatik autonomia-erkidegoek adingabeen babesari eta erreformari buruz dituzten eskumenak eragotzi gabe (AEPLoren 2. artikulua).

Era berean, eskumena izango dute lege hau aplikagarri zaien pertsonen egindako egitate kriminaletatik eratorritako erantzukizun zibilaren inguruan erabakitzeko (AEPLoren 61. artikulua). Guraso, tutore, harreragile eta zaintzaileen erantzukizun zibil objektibo, zuzen eta solidarioa ezartzen da, 18 urtetik beherakoek egindako kalteak konpontzeko eta egitate zigorgarrien ondoriozko kalteak ordaintzeko.

Lurralde-eskumenari dagokionez, delitu-egitatea gauzatu den tokiko adingabeen epaileari dagokio, 20. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Hala ere, terrorismoarekin zerikusia duten eta Zigor Kodearen 571.etik 580.era bitarteko artikuluetan tipifikatuta

dauden egitateak direnean, adingabeak egitate zigorgarria egin duen tokia edozein izanda ere, Auzitegi Nazionaleko Adingabeen Epaitegi Zentralak izango du egitate horietaz arduratzeko eskumena.

AEPLOren erreformak

A. 7/2000 LO, abenduaren 22koa

AEPLOn 4. Xedapen Gehigarria sartzen du, terrorismoaren aurkako borroka-mekanismoak indartzeko eta horrelako gertakarietan (ZKren 571. eta 580. bitarteko artikulua) eta terroristak ez diren, baina larritasun berezia duten beste egintza batzuetan inplikaturako adingabeen aurrean erantzun penala gogortzeko: giza hilketa (ZKren 138. artikulua), hilketa (ZKren 139. artikulua) sexu-erasoak (ZKren 179 eta 180. artikulua), edo Zigor Kodean 15 urte edo gehiagoko espetxealdiarekin zehatutako beste batzuk (Landrove Díaz, 2007).

Berriaz baztertzen da, gainera, AEPLO 4. XGk aipatzen dituen delituetan inplikaturako dauden 18 urtetik gorako eta 21 urtetik beherako pertsonen aplikatzea (jatorrizko AEPLOren 4. art.) (Jiménez Díaz, 2015).

Terrorismo-delituak ezagutzeko eskumena (ZKren 571. artikulatik eta 580. artikulura) Auzitegi Nazionaleko Adingabeen Epaitegi Zentralari esleitzen zaio, eta prozedura horiek ezin izango direla da adingabeen jurisdikzioaren esparruan instruitutako beste prozedura batzuekin metatu zehazten, inputatutako subjektuak berberak izan ala ez.

AEPLOren 7. artikulua, inhabilitazio absolutuko neurri berri bat sartzeko (4. XG. 2.c), eta 9.5 artikulua, larritasun handiko kasuetarako, aldatu egiten dira.

B. 9/2000 LO, abenduaren 22koa

Prebentziozko espetxealdiaren mende dauden 18 urtetik beherako adingabeen egoera arautzen du, AEPLO indarrean jartzen den unean, eta espetxetik ateratzea eta Ministerio Fiskalaren eskura dagoen erreforma-zentro batera lekualdatzea zehazten du. Fiskaltzak uste badu barneratzeari eutsi behar zaiola, adingabeen epaileari eskatu beharko dio, 48

orduko epean, eta epaile horrek deitu beharko du AEPLoren 28.2 artikuluan aurreikusitako agerraldia.

AEPLoren 3. XGren 5. atala ere kendu egiten du, Gobernuak 6 hilabeteren buruan psikologo, hezitzaile eta auzitegiko gizarte-langileen kidegoak sortzeko duen betebeharrari buruzkoa.

2 urtez etenda uzten du, AEPLO indarrean sartzen denetik, aurreko 4. artikulua aplikazioa, 18 eta 21 urte bitarteko adingabeei Legea aplikatzeko aukera arautzen zuena. Ondoren, abenduaren 10eko 9/2002 Lege Organikoak epe hori 2007ko urtarrilaren 1era arte luzatzen du, eta 8/2006 Lege Organikoarekin behin betiko ezabatzen da (Jiménez Díaz, 2015).

AEPLoren 41. artikulua 1. eta 3. paragrafoak aldatzen ditu, eta Probintzia Auzitegiei eskumena ematen die adingabeen epaileek emandako epai eta autoen aurka jarritako errekursoez arduratzeko, lehen Justizia Auzitegi Nagusietako adingabeen salei esleitutako eskumenaren ordeztuz (Landrove Díaz, 2007).

C. 15/2003 LO, azaroaren 25ekoa

AEPLoren 25. artikulua jatorrizko erregulazioan, prozedura horretan partikularrek akzioak egikaritzea ukatzen zen, akzio zibilak egikaritzea salbu. Hala ere, delitu gisa tipifikatutako egitateak egitateen unean 16 urte bete zituzten pertsonen egozten bazitzaizkien, indarkeriaz edo larderiez, edo pertsonen bizitzarako edo osotasun fisikorako arrisku larriarekin, kaltetua prozeduran instrukzio-fasean zein entzunaldi-fasean pertsonatu zitekeela aitortzen zen, honako ahalmen hauekin:

- Egindakoaren berri izatea, eta eskatzen eta erabakitzen diren eginbideen berri ematea.
- Delitu-egitateari eta hori egitearen inguruabarrei buruzko frogak proposatzea, adingabearen psikologia-, hezkuntza-, familia- eta gizarte-egoerari dagokionez izan ezik.
- Proben praktikan parte hartzea, bai instrukzio-fasean, bai entzunaldi-fasean.

15/2003 Lege Organikoak beste idazkera bat eman dio artikulu horri, eta akusazio partikularra adingabeen prozeduran egikaritzeko aukera sartzen du, aurreko mugarik gabe (Sánchez García de Paz, 2008).

D. 8/2006 LO, abenduaren 4koa

Biktima edo haren familia edo epaileak zehaztutako beste pertsona batengandik urruntzeko kautela-neurri berria sartzen du (García Rodríguez, 2020). Gainera, barneratzeko kautela-neurriaren iraupen-epea 3 hilabetetik 6 hilabetera luzatzen du; epe hori luzatzeko aukera ere ematen du, Fiskaltzak hala eskatuta, adingabearen letradua entzun ondoren eta auto arrazoitu bidez, gehienez beste 3 hilabetez (AEPLOren 28. art.).

Betetze-neurrietan, biktimaren urruntzea ere sartzen da (AEPLO 7.1.i art.), lehen terrorismo-delituen erantzule diren adingabeentzat soilik aurreikusitako erabateko desgaitasuna orokortzen du (AEPLO 7.1.ñ art.), eta barneratze terapeutikoko neurriari erregulazio berria ematen dio, 3 modalitate aintzat hartuta: erregimen itxia, erdi-irekia eta irekia (AEPLO 7.1.d art.) (Sánchez García de Paz, 2008).

Adingabeei erregimen itxiko barneratze-neurriak ezar dakizkiekeen kasuak zabaltzen dira, delitu astunak eta taldean egiten diren delituak gehituz, edo adingabea jarduera horiek egiten dituen banda, erakunde edo elkarte baten zerbitzuko denean, baita aldi baterako bada ere (AEPLOren 9.2 art.).

Erregimen itxiko barneratze-neurriaren aplikazio-araubidea eta iraupena gogortzen ditu adingabeentzat, 15 urtera arte gehieneko iraupena 2 urtetik 3 urtera igarotzen da, eta 17 urtera arte 5 urtetik 6 urtera, eta hori are gehiago handitu daiteke larritasun bereziko kasuetan: egitatea ZKren 138., 139., 179., 180. eta 571. artikulutik 580. artikulura bitartean tipifikatutako delituetako bat denean, 15 urteko edo gehiagoko zigorra duen beste edozein denean (AEPLO 10.2 art.) edota delitu aniztasuna dagoenean (AEPLO 11. art.) (Sánchez García de Paz, 2008).

18 urtetik gorakoei eta 21 urtetik beherakoei AEPLO aplikatzeko aukera kendu da behin betiko (Jiménez Díaz, 2015).

Erregimen itxiko barneratze-neurria espetxe batean betetzeko adina 21 urtera aurreratzen da (lehen 23 urtera ezartzen zen), salbuespen gisa ordeztu edo aldatu behar denean izan ezik. Eta 18 urtetik aurrera espetxeetara ere igaro ahal izatea aurreikusten da, epailearen ustez epaian proposatutako helburuak bete ez direnean (AEPLO 14. art.).

Erantzukizun zibila eskatzeko prozedura aldatzen da, eta biktimen eta kaltetuen mesederako neurri gisa ezartzen da uzi penal eta zibilak batera epaitzea, Prozedura Kriminalaren Legean helduen jurisdikziorako aurreikusitako erregulazioaren antzera.

Arreta berezia ematen zaie biktimen eta kaltetuen eskubideei, horien artean haien interesei eragiten dieten ebazpenei buruz uneoro informatua izateko eskubideari, prozeduran agertu ala ez, eta idazketa berria ematen zaio AEPLoren 4. artikuluari (García Rodríguez, 2020).

E. 8/2021 LO, ekainaren 4koa

Azkenik, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteko egindako erreforma aipatu behar da, zeinak biktimen eta adingabe batek egindako delitu baten ondorioz kaltetuta suertatutako eskubideen inguruko (AEPLO 4. art.) eta segurtasun eta bigilantzia neurrien inguruko (AEPLO 59. art.) aldaketa sartu zuen. Lege honek erantzuna ematen dio Espainiak bere gain hartutako nazioarteko konpromisoak gure ordenamendu juridikoan sartzeko beharrari. Azken xedapenetako hamaikagarrenak adingabeek egindako delituen biktimen eskubideei buruzko AEPLoren 4. artikuluan aldaketa egiten du, subjektu hauen genero-indarkeriako delituen ondoriozko biktimei eskubide berriak esleituz (Aranda Jurado, 2021).

Erreforma hau indarrean sartzean Prozedura Kriminalaren Legea ere aldatzen da. Zehazki, lege honetako 109 bis eta 110 artikulua behin akusazio-idazkia egiteko epea igarota biktimen pertsonatzea ahalbidetzen duen jurisprudenziara egokitzen dira, betiere Ministerio Fiskalak edo pertsonatutako gainontzeko alderdiek egindako akusazio-idazkiei atxikitzen bazaizkio (Aranda Jurado, 2021).

3. BITARTEKARITZA PENALA 5/2000 LOn

3.1. Kontzeptua: justizia leheneratzailea eta bitartekaritza

Zigor-arloko bitartekaritza justizia leheneratzaileari dagokion tresna bat da, eta, oro har, honela defini daiteke: delitu jakin batean inplikaturako alderdiak delituaren ondorioei aurre egiteko eta etorkizunerako inplikazioak kolektiboki ebazteko biltzen dituen prozedura (Cámara Arroyo, 2011).

Justizia-leheneratzailea sistema ezberdinetan banatzen da (bitartekaritza, adiskidetzea, negoziazioa, arbitrajea), gaur egun bitartekaritza nagusituz (Armenta Deu, 2018).

Justizia-leheneratzailearen defendatzaileen artean ez dago adostasunik, jarrera ñabartuak baizik. Ideia batzuk funtsezkoak dira, hala nola elkarrizketa leheneratzailea, konpontzea, eta biktimaren eta biktima-eragilearen “ahalduntzearen” garrantzia; horrez gain, biktima eta arau-hauslea komunitatean berriz integratzen dira, eta honek alderdiek beren hurbilketa-harremana komunitate osoarentzat baliotsua dela ikus dezaten laguntzen du; beste ideia batzuk, hala nola haien irismena eta aplikazio-eremu objektiboa, eztabaidarako irekita daude (Armenta Deu, 2018).

Ordainketa Justiziaren kontrakoa da, eta bere ezaugarri edo printzipio garrantzitsuenak honako hauek dira (Álvarez Ramos, 2008):

- Parte hartzea: inplikatu guztien parte-hartzea bilatzen du, arau-hauslea, biktima eta eskubideak urratu zaizkien beste pertsona batzuk. Nahiz eta parte-hartze aktiboa eta borondatezkoa den, konpontzea eragiten duen zorraren barne-sentimenduan eta aitorpenean oinarritua, zigor-prozesuaren alternatiba denean eta, ondorioz, egileak onura penala lortzen duenean, kanpo-onura penal horrek ere modu legitimoan motibatzen ditu parte-hartzaileak.
- Konpontzea (edo konpentsazioa): biktimak bere onera etortzeko eta bere segurtasun-zentzua berreskuratzeko behar duena aportatzen du. Batzuetan, behar duena informazioa baino ez da. Beste batzuetan, konpontze ekonomikoa, edo bere haserrea adierazten uztea, ostutakoa itzultzea, etab. Konpontzearen kontzeptua, beraz, itzulketa ekonomiko hutsa baino zabalagoa da.

- Erantzukizuna: egileak legea urratu duela ulertzea baino haratago doa. Kontua da, gainera, pertsona bati edo talde bati eragindako kalte zehatza onartzea eta haren ekintzak beste batzuei kalte egin diela ulertzea. Erantzukizuna aldaketaren motorra da, eta horrek zor-sentimenduak sortzeaz gain eta konponbideak bilatzeko motibazioa ere sortzen du.
- Adiskidetzea (edo topaketa): bi alderdien artean harremanak berrezartzeko edo, gutxienez, gatazkari modu baketsuan heltzeko aukera emango duten sentimenduak eta konponbideak adierazteko.
- Komunitarioa: komunitatea indartu eta guztiontzako leku seguruago eta bidezkoagoa bihurtu nahi da, gizarte-eragileek irtenbideetan parte hartuz.

Beraz, zaila da zehazki zer den definitzea, izan ere prozedura honen ezaugarrietako bat malgutasuna da, eta beraz, ez da komenigarria muga argi eta baztertzailak ezartzea. Behin hau esanda, 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentarauak definizio bat ematen du bere 2.1.d) artikuluan: “justizia leheneratzailea biktimari eta arau-hausleari, hirugarren inpartzial baten esku-hartzearekin eta horretarako baimena emanda, zigor-arloko arau-haustearen ondoriozko arazoak konpontzeko aukera ematen dien edozein prozesu da”. Hau da, justizia leheneratzailea gatazkak konpontzera bideratutako prozedura bat da, non alderdiek, modu boluntarioan, beste hirugarren pertsona inpartzial bat (bitartekaria) erabiltzen duten akordio batera iristeko (De Armas Hernández, 2003).

Laburbilduz, justizia-leheneratzailea paradigma-aldaketa bat da, egungo ereduaren porrotaren ideian eta biktimaren eta Estatuaren arteko harremanari buelta emango dion alternatiba batera jotzeko premian oinarritua; sistema penalaren funtzioari buruzko pentsamolde tradizionalaren eta delituak sortutako egoerei aurre egiteko moduen berrikuspen sakona da (Armenta Deu, 2018).

Justizia mota honek forma ezberdinak izan ditzake, hau da, programa eta praktika ezberdinak barne-biltzen ditu. Álvarez Ramosen arabera (2008), hauek dira justizia leheneratzailearen praktika nagusiak:

- Biktima-arau-hausle bitartekaritza: justizia leheneratzailearen adierazpenik zabaldiena da. Prozesu honen bidez, delitu-gertakari batean dauden pertsonak,

komunikazioa eta elkar aitortzea errazten duen hirugarren baten laguntzarekin, elkartzen dira etorkizunean izan ditzaketen inplikazioak konpontzeko. Konpontzea modu zabalean ulertzen da hemen, alderdi sinbolikoak eta publikoak barne. Eragindako kaltearen larritasuna delitutik ondorioztatzen diren ondorio negatiboen handitasunaren arabera balioesten da, ondorio materialak zein moralak izan, berehalakoak eta epe luzerakoak; era berean, dimentsio indibiduala eta dimentsio soziala bereizten dira (Garmendia Loyarte, 2019).

- Hitzaldi komunitarioak: Zeelanda Berrian sortu ziren gazte-justizian, eta mundu osora zabaldu dira. Bitartekaritzan baino parte-hartzaile gehiagok parte hartzen dute: bigarren mailako biktimek (biktimaren senideak eta hurbilekoak) eta arau-hauslearen hurbilekoek, baita gaien interes zuzena duten beste pertsona batzuek ere. Gazteen zigor-testuinguruan bitartekotza zabaltzen da batzuetan, batez ere biktima adingabea denean eta arau-hauslearen zein biktimaren gurasoek zuzenean parte hartzen dutenean.
- Bake-zirkuluak: zigor-arloko justiziako funtzionarioengana eta joan nahi duen komunitateko edozein kideara zabaltzen da partaidetza. Kanadako aborigenen tradizioa zabaldu egin da, eta topaketan zirkuluan esertzeko moduagatik hartu du izena.
- Itzulketa eta zerbitzu komunitarioak: Justizia-leheneratzailearen jardunbideak dira, hala nola, ordainketen bidez eragindako kaltea konpontzea, objektua bueltatzea edo beste batekin ordeztzea edo biktimaren mesederako zuzeneko zerbitzuak ematea, bai eta arau-hausleak komunitate-zerbitzuak ematea ere, konpontze gisa, biktimarekin zuzeneko harremanik izan gabe. Gazte-justizian erabiltzen dira bitartekaritza-programen barruan, biktima instituzionala denean, prozesuan parte hartzeko gogorik ez duenean edo horretarako gaitasunik ez duenean, eta abar. Prozesu judizialaren ordezeko judizioz kanpoko irtenbide gisa jasotzen dira, bitartekaritza bezala, hau da, zigor-alternatiba gisa.
- Laguntza-zirkuluak: Kanadan aplikatu dira, sexu-erasotzaile helduekin. Komunitate erlijiosoetako kideek hitzarmen edo akordio bat hitzartu dute preso ohiei laguntzeko. Praktika horren helburua segurtasun publikoa areagotzea da, erasotzaileak, zigor nagusia bete ondoren, birgizarteratzeko plan bat jarraitzeko konpromisoa hartzen baitu.

- Epaiketa ondoko adiskidetzea: epai judizialaren ondoren, hau da, kondena bete bitartean, kondenatua eta biktima biltzen ditu. AEBetan delitu oso larrien kasu jakin batzuetan aplikatu da (bortxaketa, giza hilketa saiakera, etab.), biktimari ordain morala emateko eta kondenatua damutu ahal izateko. Gazte-justiziaren testuinguruan araututa dago, neurri judiziala ezarri ondoren aldatzeko aukera emanaz, nahiz eta oso gutxitan aplikatzen den. Uztartze horretara iristeko bitartekotza-teknikak erabiltzen dira.

3.2. Printzipio orokorrak

A. Borondatezkotasun printzipioa

Alderdiek libreki eta borondatez hartu behar dute parte bitartekaritzan, bestela ez du ezertarako balioko. Ezaugarri honek alderdiei eta bitartekariari eragiten die prozedura osoan zehar, izan ere alderdien borondaterik gabe, ez da posible izango bitartekaritzarik egitea. Borondatea hasieratik eta bitartekaritza bukatu arte emango da, hau da, alderdiek edozein momentutan eta askatasun osoz, nahi izanez gero, prozedurarekin jarraitzeari uko egin diezaiokete. Halaber, bitartekariak ere bitartekaritza bukatutzat eman dezake kasuaren baldintza zehatzengatik komenigarria ikusten badu (Departament de Justicia).

Puntu honetan garrantzitsua da, baita ere, alderdien informazio eskubidea aipatzea, izan ere, pertsonen askatasuna bermatzeko asmoz, beharrezkoa izango da alderdiei beren eskubideen, betebeharren, prozeduraren izaeraren eta honek izan ditzakeen ondorio posibleen inguruko informazio guztia ematea. Informazio hau, gainera, helburu diren pertsonen gaitasun tekniko eta linguistikoetara egokitu beharko da, hauek prozeduratik eratortzen diren eskubide eta obligazioak uler ditzaten. Beraz, honekin ondoriozta daiteke, alderdietako batek prozedura ulertzeko gaitasunik ez badu, ezingo dela berau aurrera eraman (Cruz Parra, 2013) (Barona Vilar, 2011).

Nolanahi ere, bitartekaritzan parte hartzea onartzeak ez du esan nahi inputatuak lehen hartu-eman horretan gertakariak aitortzen dituenik, ezta sistemak *a priori* biktimari eragindako kalteak onartzen dituenik ere. Aitzitik, garrantzitsua da bitartekaritzara jotzeak, berez, alde zuzeneko onarpenik suposatzen ez duela azpimarratzea, izan ere,

bestela, errugabetasun-presuntziorako eskubidea urratuko bailitzateke (Barona Vilar, 2011).

B. *Osagarritasun printzipioa*

Bitartekaritza penalera jotzeak ez du, berez, prozesu penalari uko egitea ekartzen; aitzitik, alde batetik, bitartekaritza penalaren emaitzak prozesu penala hasi baino lehen, bitartean edo amaitzean harekin lotzeko aukera eskatzen du, eta, bestetik, bitartekaritza penalak huts egiten duen kasuetan auzitegien bidez babes judizial penala oztoporik gabe jasotzeko aukera (Barona Vilar, 2011).

Prozeduraren eraginkortasunak prozesu penalaren garapena aldatu, murriztu edo eseki dezakeen arren, baita ezarritako kondenaren edukia alda dezakeen arren, ezin daiteke bide alternatibo bat denik esan, auzitegien tresna osagarri bat baizik (Barona Vilar, 2011).

C. *Proporzionaltasun prozesal eta penalaren printzipioa*

Proporzionaltasuna askatasun-gabetzea edo askatasun-murrizketa dakarten zehapenen neurrigabeko erabilera saihesteko premia hartu behar da; penala hiru prisma ezberdinen bidez aztertu behar da (Barona Vilar, 2011):

1. Helburura egokitu beharra. Epaileak edo legegileak erabaki behar du zer neurri edo zehapen den hura justifikatzen duen helbururako egokiena; horretarako, babestutako ondasun juridikoa hartu beharko du kontuan.
2. Zigorra eskatzea. Beharrezkoa ez den zigorra ezartzea bidegabekeria argia eta larria da, beraz, hiru baldintza bete behar ditu: gutxieneko esku-hartzea izatea, babestutako ondasun juridiko baten aurkako portaera izatea (zaticatzea) eta Zigor Zuzenbidea azken errekurtso moduan erabiltzea.
3. Proporzionaltasunaren esanahiak eskatzen du epaileak zigor penalaren larritasunaren eta zigor horrekin lortu nahi duen helburuaren arteko haztapen- edo balorazio-epaiketa egitea.

Era berean, ordenamendu juridikoak zigor-arloko helburuak lortzeko ahalbidetzen dituen bideen artean ere haztatu eta baloratu daiteke; proporzionaltasun prozesalaren

printzipioak bide prozesal egokiena aukeratzea ahalbidetzen du, berarekin lotuta dagoen proportzionaltasun penalaren printzipioaren beharra ahaztu gabe (Barona Vilar, 2011).

D. *Konfidentzialtasun printzipioa*

Saioen edukia eta bitartekaritzaren egikaritzatik sortu izan daitekeen informazioa alderdiek eta bitartekariak soilik ezagutuko dute. Printzipioz, prozeduratik ezagutzera eman daitekeen bakarra emaitza izango da, akordioa edo desakordioa (Departament de Justícia). Epaileak ez du akordio aktan jartzen ez duen edota alderdiek bistan esan ez duten ezer ezagutuko. Pertsonaren batek ahozko epaiketa baino lehen bitartekaritzari uko egin nahi badio, inork ezingo du akordio aktetan jasotako datu edota espresiorik erabili; biktima edo akusatuak ahozko epaiketan berretsiz gero soilik izango dute proba izaera. Printzipio hau beteko ez balitz, errugabetasun printzipioa urratuko litzateke (Belloso Martín, 2010) (Barona Vilar, 2011).

E. *Doakotasun printzipioa*

Zuzenbide penalaren izaera publikoa dela eta, alderdiek ez diote ez bitartekariari, ez gainontzeko operadore juridikoei ezer ordainduko. Bake soziala eta hiritarren segurtasuna bermatzea Estatuaren funtzioa da, eta, horregatik, justizia penalaren erabilera doakoa da. Edozein pertsonak izango du bitartekaritza doan erabiltzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioko 14. artikuluko berdintasun printzipioa bermatuz (Cruz Parra, 2013) (Barona Vilar, 2011).

F. *Ofizialtasun printzipioa*

Ezaugarri edo printzipio orokor hau ere Zuzenbide Penalaren izaera publikoarekin lotuta dago. Bitartekaritza penalaren kritika nagusiei aurre egiteko balioko du honek, prozesu penalaren pribatutasunari. Horregatik, bitartekaritzari buruz ari garenean “prozedura” hitza erabiltzen dugu, ez “prozesu”. Bitartekaritza penala ezin da prozesu moduan ulertu, prozesu bakarra baitago: penala, zeinaren barruan kokatzen den bitartekaritza. Beraz, epaile edo fiskalari egokituko zaio kasuak bitartekaritza penaleko zerbitzura deribatzea (Cruz Parra, 2013).

G. Malgutasun printzipioa

Printzipio honen arabera, prozedurak malgua izan beharko du saioak egiteko epeekin eta baita amaierari dagokionez. Hala ere, honek ez du esan nahi betirako luzatu ahalko denik, izan ere ezin da ahaztu bitartekaritza ematen den bitartean prozesu penala etenda egongo dela, beraz, itzaroteko arrazoizko epe bat ezarriko da. Horrez gain, malgutasunak saioen eduki eta iraupenari, hauek egiteko tokiari eta alderdiek erabakitako konponbidearen edukiari ere egiten dio erreferentzia (Cruz Parra, 2013).

H. Aldebikotasun, berdintasun eta kontraesan printzipioak

Printzipio honek bi alde ditu. Alde batetik, prozeduraren protagonistak gatazkan murgilduta dauden alderdiak izateari egiten dio erreferentzia, nahiz eta horrek ez duen unean-unean gatazka egoerarekin lotura duten zenbait pertsonen parte hartzea eragozten (adingabeen kasuan, adibidez, guraso edo tutoreak). Alderdien abokatuak alde batera geratuko dira, edo, behintzat, ez dute modu aktiboan parte hartuko, izan ere ez dira gatazkaren zati eta beren ordezkatuaren erabakitzeko askatasuna kolokan jar dezakete. Honek ez du esan nahi bitartekaritza parte hartzearen inguruko aholkuak eman ezin diezaieketenik edota honen garapenaren eta bukaeraren inguruko informazioarik jaso ezin dutenik, akordioa onartu edo ez erabakitzeko orduan eta hauek praktikan jartzeko orduan beren ezagutza teknikoa aportatu ahal izateko (Cruz Parra, 2013).

Beste alde batetik, alderdien arteko berdintasuna aipa daiteke. Berdintasun hori errespetatu egin behar da eta, beraz, alderdiek osotasun psikikoari lotutako minimo batzuk bete beharko dituzte, hau da, ezagutza eta borondate nahikoa izan behar dute prozeduran parte hartzeko. Hori horrela, gaixotasun mentalen bat duten pertsonak eta ezgaitasunen bat duten adingabeak ezingo dira bitartekaritza prozesuaren parte izan, kasu konkretua ulertzeko gaitasun nahikoa eta ordezkaritza legala dutenean salbu. Hau da baita ere etxeko indarkeria eta genero indarkeria kasuetan bitartekotza ez erabiltzeko arrazoia, izan ere, kasu horietan ematen den desoreka emozionalak eta biktimarioaren boterearekiko menderatzeak, biktima negoziatioetan gutxiagotasun egoeran egotea eragin dezake. Espainian genero indarkeria kasuetan bitartekaritza erabiltzea espresuki debekatzen da (Cruz Parra, 2013).

I. *Inpartzialtasun printzipioa*

Printzipio hau prozesuko alderdien arteko berdintasunaren ondorioa da, eta bitartekariari alderdien jardunean botere-oreka mantentzen dela bermatzeko beharra ezartzen dio. Hasieran alderdien posizioa ez da simetrikoa eta bitartekariak kontuan izan behar du hori, hau da, batek gaitza pairatu du eta besteak legea hautsiz eragin du, beraz, bitartekariak bere jardunarekin balantza hori orekatu behar du. Baina, aldi berean, alderdien simetriaren alde egin behar du, arazoaren konponbidea lortzeko negoziatioetan bi alderdiek modu librean eta inork behartu gabe parte hartzen dutela bermatuz (Cruz Parra, 2013).

Horrez gain, bitartekariaren lana da alderdien arteko komunikazioa berdintasun egoeran gertatzen dela ziurtatzea; horretarako, “ekitate komunikatiboa” lortu beharko du, izan ere denok ez ditugu komunikatzeko gaitasun berdinak eta hori kontuan hartu beharko du bitartekariak (Cruz Parra, 2013).

Hala ere, bitartekariak inpartzialak dira eta ez dute auzietan parte hartzen; ez dira aholkulariak, ez dute posizio indibidualen inguruko aholkurik ematen eta, normalean, bitartekaritza prozeduraren paraleloki aholkularitza juridikoa eskatzea gomendatzen da (Unión Europea, 2020).

Kontuan izan behar da, baita ere, egoera hauetan emozio gogorrak daudela tartean eta, hori horrela den heinean, batzuetan zaila izaten da alderdientzat errespetuz jokatzeko. Hala ere, nahiz eta komunikatzeko askatasuna utzi behar zaien, bitartekariak ezingo ditu errespetu faltak onartu; inoiz gertatuz gero, ohartarazpena egingo dio dagokion alderdiari berriz ere gerta ez dadin. Behin eta berriz gertatzen bada, bitartekaritza bertan behera utzi eta prozesu penal arruntari emango dio bidea bitartekariak (Cruz Parra, 2013).

Azkenik, printzipio honek adierazten du bitartekariak ezin duela alderdi baten alde agertu ezta horietako edozeinekin inolako harremanik izan bitartekotza baino lehen, bitartean edo ondoren (Cruz Parra, 2013).

J. *Neutraltasun printzipioa*

Bitartekotzan, arbitro edo epaileen jardunean ez bezala, neutraltasuna bitartekariaren funtzioaren izaerarekin lotuta dago, hau da, honek ez du erabakirik hartzen, bere lana lankidetzakoa edo asistentziala da, beraz, ez da alderdi baten edo bestearen alde egongo, baizik eta bien beharrak asetzearen alde. Alderdien interes eta beharrak ulertzeko gai izan behar du bitartekariak, baina “distantziakidetasun funtzionala” deritzona ahaztu gabe, hots, bere balore edo ideologia propioak alde batera utzi beharko ditu eta ezingo du alderdiekin aliantzarik egin. Gainera, emozioekiko sentikorra izan behar du, baina alderdi bakoitzak bestearen aurka jartzeko egiten duen ahaleginak ezin du beragan eraginik izan (Cruz Parra, 2013).

3.3. Erregulazioa

3.3.1. Bitartekaritza aurre-prozesala

Bitartekaritzak, judizioz kanpoko bitartekaritza gisa, zigor-arloko prozesuaren ordezeko mekanismo gisa jardun dezake. Gatazken konponketarako bitartekotza komunitarioa sustatzen duten sistemetan erabiltzen da gehien. Bitartekaritza mota hau ez dago zuzenean AEPLOn aurreikusita, baina lege honen 18. artikuluan jasotako aurreikuspenetan jaso daiteke (Corbalán Olivert & Moreno Gálvez, 2013).

Artikulu horren arabera, Fiskaltzak espedientearen hasiera alde batera utzi ahalko du salatutako egitateak ZKn edo lege penal berezietan tipifikatuta dauden eta pertsonen aurkako indarkeriarik edo larderiarik erabili ez den delitu ez hain larriak edo faltak (ZKren 2015 erreforman desagertu ziren, beraz, delitu arinak) direnean. Kasu horretan, Ministerio Fiskalak jarduna adingabeak babesteko eskumena duen erakunde publikoari helaraziko dio, lege honen 3. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko. Halaber, Fiskaltzak ofenditu edo kaltetun ezagunei erabakitakoa jakinaraziko die. Hala ere, adingabeak aurretiaz izaera bereko beste egitate batzuk egin dituela egiaztatzen denean, Fiskaltzak espedientea hasi eta legearen 27.4 artikulua baimentzen duenaren arabera jardun beharko du.

Kasu honetan, legeak espedientea ez hasteko eskatzen dituen baldintzak betetzea, Fiskalak, prozeduraren instruktore den aldetik eta legeak aitortzen dion egokitasun-

printzipioa betez, espedientea hasteari uko egitea erabakitzeko beste faktore bat izan daiteke, hezkuntza- eta familia-eremuan egindako zuzenketagatik (Corbalán Olivert & Moreno Gálvez, 2013).

3.3.2. Bitartekaritza prozesala

Bitartekaritza aurre-prozesala emateko baldintzak betetzen ez direnean edo adingabeak aurretiaz izaera bereko portaeraren bat burutu duenean, Fiskaltzak erreforma espedienteari hasiera eman beharko dio. Hala ere, biktima eta autorearen artean legeak ezarritako baldintzetan adiskidetze-konpontzea ematen bada, artxibatze aukera izango du (Corbalán Olivert & Moreno Gálvez, 2013).

Prozesuaren fase honetako bitartekaritzaren erregulazioa AEPLoren 19., 20. eta 20. artikuluetan eta AEPLoren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren 5. artikuluan arautzen da (Corbalán Olivert & Moreno Gálvez, 2013).

AEPLoren 19. artikulua adingabearen eta biktimaren artean adiskidetzea edo konponketa ematen den kasuetan Ministerio Fiskalak largespena eskatzea ahalbidetzen duten premisa eta prozedura arautzen ditu (Colás Turégano, 2015).

Premisei dagokienez, hiru oinarritan artikulatzen dira. Alde batetik, Ministerio Fiskalak adingabearen inguruabarrak eta interesa baloratu beharko ditu, adingabeak adiskidetzeko eta erreparatzeko duen alde aurretiko jarrera beste baldintza batzuen gainetik nabarmenduz. Bestetik, burututakoa delitu ez hain larria edo falta (delitu arina gaur egun) izan beharko da, delitu larriak baztertuz; hala ere, honek ez du esan nahi kasu horietan legeak bitartekaritza egitea debekatzen duenik, espedientearen largespena ezinezkoa dela baizik. Bukatzeko, Fiskalak largespena eskatu ahal izateko beharrezkoa da adingabea biktimarekin adiskidetu izana edo konpontzeko edo lantalde teknikoak proposatutako jarduera hezitzailea aurrera eramateko konpromisoa bere gain hartu izana. Beraz, konponketa zuzena eta sinbolikoa aurreikusten ditu legeak; izan ere, posible da delituak biktimarik ez duen kasuetan, biktima identifikatu ezin den kasuetan edota honek prozeduran parte hartu nahi ez duen kasuetan bitartekaritza aurrera eramatea (Colás Turégano, 2015).

Printzipioz, esan bezala, ez da posible delitu larrien kasuan espedientearen largestea, baina, AEPLoren 18. artikuluan ez bezala, ez dira indarkeria eta larderia larririk gabe burututako delitu ez hain larriak edo faltak baztertzeko (Corbalán Olivert & Moreno Gálvez, 2013).

Adingabeak akordioan hartutako konpromisoa betetzen badu jardueren largespen eta artxiborako autoa emango da. Hala ez bada, izapidetze prozesalak aurrera jarraituko du eta komeni den neurri zehatzaile-hezitzailea ezarriko da, ez-betetzea adingabearen borondatearekin zerikusirik ez duten arazoengatik izan denean salbu (Corbalán Olivert & Moreno Gálvez, 2013).

3.3.3. Bitartekaritza post-sententziala

Aurreko atalean aipatutako “*Beijingo Arauekin*” bat eginez, AEPLoren 51.3 artikulua bitartekaritzarako beste aukera bat azaltzen du: “Adingabea biktimarekin adiskidetzen denean, lege honen 19. artikuluan aipatzen den bien arteko akordioa gertatzen den edozein unetan, ezarritako neurria ondorenik gabe utzi ahal izango da, baldin eta, Fiskaltzak edo adingabearen Letraduak proposatuta eta lantalde teknikoa eta adingabeak babestu edo erreformatzeko erakunde publikoaren ordezkariak entzun ondoren, Epaileak uste badu egintza horrek eta jada beteta dagoen neurriaren iraupenak behar bezala adierazten dutela adingabeak egindako egitateek merezi duten gaitzespena.”

Beraz, kasu honetan bitartekaritza prozedura ez da prozesu penalaren alternatiba gisa erabiltzen, baizik eta ezarritako neurriaren exekuzioaren alternatiba gisa. Honekin ondoriozta daiteke, beste bi kasuetan ez bezala, hau delitu larrien kasuan ere erabil daitekeela (Corbalán Olivert & Moreno Gálvez, 2013). Horrez gain, beste desberdintasun bat ere badu, izan ere, kasu honetan, ezin da biktimaren partehartzerik gabe bitartekotzarik aurrera eramane (Colás Turégano, 2015).

Hala ere, Legeak delitu bereziki larrien kasuan bitartekotza mota hau egiteko segurtasun tarte batzuk ezartzen ditu: urtebete edo ezarritako neurriaren iraupenaren erdia pasatu beharko da neurriaren aldaketa burutzeko (Colás Turégano, 2015).

3.4. Adingabeen bitartekaritza penalaren prozedura

3.4.1. Alderdiak

Hiru dira bitartekaritza prozeduran parte hartzeko beharrezkoak diren alderdiak: bitartekaria, arau-hauslea eta biktima. Horiez gain, Ministerio Fiskala eta Adingabeen epaileak ere parte hartzen dute eta, batzuetan, beste alderdi batzuek ere parte hartzeko aukera dago.

A. Bitartekaria: talde-teknikoa

AEPLO eta berau garatzen duen Erregelamenduan lantalde teknikoa osatzen duten psikologo, hezitzaile eta gizarte-langileei egozten zaie bitartekaritza lana egiteko funtzioa (Aranda Jurado, 2021). Bitartekariaren zeregina alderdien arteko akordioak erraztea da, gatazka konpon dezaten; beraz, esan dezakegu bitartekaria ez dela epaile bat, ezta gatazka erabakitzen duen hirugarren bat ere. Bere eginkizuna prozedura neutraltasunez bideratzea da, gatazkari konponbide eraginkorra aurkitzeko, eta, aldi berean, komunikazioa erraztu eta akordioei legitimitatea emateko. Era berean, alderdien topaketa aurrera eramaten lagunduko du (Aucejo Navarro, 2015).

Bitartekaria elementu aktiboa da, izan ere informatu eta behatzeaz gain, alderdiak topaketarako prestatzen ditu. Behar izanez gero, bakoitzaren jarrera aldatzeko hausnarketa egingo ditu, alderdiek beren jarrerak malgutzeko eta bestea modu enpatikoagoan ikusi ahal izateko. Haien arteko errespetua eta elkarri entzutea sustatzen du, eta puntu komunak eta konponbide partekatuak jasotzen ditu (Aucejo Navarro, 2015).

Hiru ezaugarri zehatz izan behar ditu (Ferreirós Marcos, 2011):

- 1) Esperientzia negoziatioetan: modu azkarrean kasu bakoitza zerk bereizten duen jakitea, arazoaren azpian dagoena ulertzea.
- 2) Objektibotasuna: biktima eta delitugilearekiko jarrera enpatikoa izatea, bakoitzaren posizioa ezagutzeko asmoz.
- 3) Inpartzialtasuna: alderdien konfiantza lortzeko bere iritzi pertsonalak albo batera utzi behar ditu eta ezingo du soluzioa bere gogobetetzera zuzendu, alderdiek erabaki beharko dute.

Lan hau egiteko formazio teorikoa izatea eta bitartekaritza prozesua hastean pentsamoldea aldatzeko disposizioa egotea, izan ere, egon ezean, AEPLoren 27.1 artikuluko txostena egin beharko luke. Gainera, ezaugarria hauek izan beharko ditu: pazientzia, komunikatzeko modu beroa, umorea, neutraltasuna eta aukera zentzua, sintesirako eta erresoluzio aktiborako gaitasunak, entzutea eta bitartekotza programaren ezagutza (Ferreirós Marcos, 2011).

Biktimak parte hartzen duen kasuetan, lasaitasuna eskaini behar du, elkar ulertzea sustatu eta aldeei beren sentimenduak eta interesak, batenak zein bestearenak, ezagutzen lagunduz. Adierazitako emozioekiko sentikorra izan behar du, eta komunikazio-moduaren parte izan daitezen bultzatu behar du (Ferreirós Marcos, 2011).

Biktimaren parte-hartzea ezinezkoa den kasuetan, bitartekariaren jarduera areagotu egiten da, zeharkako konpontzea edo hezkuntza-jarduera egin ahal izateko eskuragarri dauden baliabide egokiak kudeatu behar baititu. Ebazteko eta taldean lan egiteko gaitasuna izan behar du, eta koordinazioa eta irudimena ezinbestekoak dira horretarako (Ferreirós Marcos, 2011).

Beraz, hauek dira Ferreirós Marcosen (2011) arabera figura honen funtzioak:

- 1) Elkarrizketan zehar jarraitu beharreko prozedura zehaztea: bitartekotza egiteko bideragarritasuna baloratzea, komunikazioa erraztea, alderdi guztien hausnarketa sustatzea.
- 2) Komunikazioa errazten du, bai banaka, bai batera egindako saioetan edo komunitatean.

Biktimak parte hartzen ez duen kasuetan:

- 3) Adingabeak hezkuntza-jarduera edo zeharkako konpontzea egiteko komunitatearen baliabideen kudeaketa egiten du eta harekin koordinatzen da.
- 4) Baliabidea adingabea bera den hezkuntza-jarduerak orientatzen ditu, baliabide pertsonalak garatuz.
- 5) Gazteen Justizian Indarkeriaren Prebentziorako Programetan parte hartzeko hautagaiak aukeratzen ditu.

Biktimak parte hartzen duen kasuetan:

- 6) Alderdiak modu egokian komunikatzeko espazio bat errazten du, topaketa konbokatuz.
- 7) Tentsioa murrizten du eta alderdiei gatazka kudeatzeko baliabideak ematen dizkie.
- 8) Akordio eta proposamen positiboen formulazioa errazten du, alderdiak beren kabuz soluzio batera hel daitezen.

B. Delitugile adingabea

Badakigunez, Espainian adin nagusitasuna 18 urtetan finkatu da, beraz, adin horretatik beherako pertsoneri adingabe deritze. Hauek erregimen berezi bat dute, zeina 14 eta 18 urte bitarteko pertsoneri aplikagarri zaien. Hala ere, nahiz eta ondorio penalei dagokienez ez zaien helduen Zigor Kodea aplikatzen, lege horren portaeren ondorioen aurreikuspen penala, hau da, tipikotasuna aplikagarri zaie (Aucejo Navarro, 2015).

Adingabea bere legezko ordezkarien guraso-ahalaren, tutoretzaren edo kuradoretzaren mende egoteak baldintzatu egiten du bitartekaritza-prozeduran parte hartzea; hala ere, kalte erreklamagarriak dauden kasuetan legezko ordezkariak adingabearekiko duten erantzukizun subsidiarioak hauen partaidetza justifikatu du (Aranda Jurado, 2021).

Adingabearen gaitasuna betetzeko beharra legean aurreikusita dago. Zehazki, AEPLO garatzen duen Erregelamenduaren 5.1.c) artikulua esaten du beharrezkoa dela adingabearen ordezkari legalak konforme egotea honek bitartekaritzan parte hartzeko. Gainera, artikulua berdina, bukaeran, ordezkari legalen edo adingabearen adostasun falta dagoenean lantalde teknikoak Ministerio Fiskalari jakinaraziko diola eta bitartekaritza bertan behera geratuko dela aurreikusten du. Hala ere, aipatutako onarpen hori beharrezkoa den arren eta legeak aurreikusten ez duen arren, adingabea adin nagusitasunera hurbiltzen den kasuetan, praktikan, posible da bitartekaritza prozedura aurrera eramatea, izan ere adingabearen interes gorena eta honen borondatearen autonomia gailenduko dira (Aranda Jurado, 2021).

C. *Biktima*

Europar Batasunaren 2012/29 Direktibari jarraituz, bitartekaritzaren helburu nagusia biktimaren interes eta beharrak asetzea izan beharko litzateke, delituak eragindako kalteak konpontzea eta kalte gehiago ez sorraraztea. Beraz, bitartekotza modu egokienean egiteko, biktima pertsona fisikoa izatea garrantzitsua da (Aranda Jurado, 2021). Biktimaren parte-hartzeak zentzua du berez, eta ez bakarrik gaztearekin lotuta; horrenbestez, gatazkaren konponbidean aktiboki parte hartu ahal duenez gero, justiziaren ikuspegi hurbilagoa izateko aukera dauka eta honek kontuan hartzen duela ikusiko du, entzuna eta ez hain isolatua sentiaraziz, eta arau-hauslearekiko beldurra galduz (Aucejo Navarro, 2015).

Hala ere, AEPLOk biktimak pertsona juridikoak izateko aukera ere aurreikusen du. Ondorioz, Espainian biktima pertsona juridikoa denean adingabekoen bitartekaritza penala egitea posible da, betiere pertsona fisiko batek ordezkatzan badu (Aranda Jurado, 2021).

Horrez gain, biktima zehatzekin egindako bitartekaritzak ohikoagoak diren arren, hau falta denean egitea ere posible da, izan ere delitua kolektibo batek jasaten duenean, nahiz eta konkretua ez izan, berau ordezkatzan duen norbait izan daiteke biktima, bitartekaritzan gizartearen partaidetza sustatuz. Berdina gertatzen da urratutako ondasun juridikoa publikoa denean; kasu hauetan Administrazio Publikoaren partaidetza beharrezkoa bihurtuz. Biktima zehatza ez den kasu hauetan, legeak adingabeak lantalde teknikoak proposatutako komunitatearen zerbitzurako jarduera egitea aurreikusten du (Aranda Jurado, 2021).

Prozedura honetan parte hartzearen ondorioz, biktimak jasandako biktimizazioa gaindituko du eta sufritutako kaltea konpondu dela sentituko du, izan ere lehen pertsonan arau-hauslearekin akordio batera heltzeko elkarrizketa izateak, normalean, biktiman asebetetze sentimendua eragingo du, adingabeak bere erantzukizuna onartu eta barkamena eskatuko baitio (Aranda Jurado, 2021).

3.4.2. Faseak

A. Aurretiko fasea

Kasuaren aukeraketa eta bitartekaritza-taldera bideratzea

Epaile titularrak bitartekaritza izan dezakeen kasu bat hautatzen du, egitatearen eta alderdien adierazpenen arabera, eta fiskalari bidaltzen dio, adostasuna adieraz dezan. Behin epaitegiak, fiskalarekin batera, auzia bitartekaritzara pasatzea erabakitzen duenean, bulego judizialak alderdien legezko ordezkariari erabakia jakinarazi eta prozesuaren berri ematen die. Alderdiei gutun bat bidaliko zaie bitartekaritzan parte hartzera gonbidatzeko (Ferro Veiga, 2020).

Ondoren, epaitegia bitartekaritza-taldearekin harremanetan jarri eta dokumentazio osoa (salaketak, aditu-txostenak, alderdien adierazpenak...) duen bitartekaritza-espeditentea emango dio azter dezan (Ferro Veiga, 2020).

Alderdiekin harremana eta elkarrizketak

Bitartekaritza-taldea alderdiekin kontaktuan jartzen da, printzipioz, telefonoz, baina bere legezko ordezkarien edo salaketan zehaztutako harremanetarako pertsonen bitartez edo Internet bidez ere izan daiteke, alegia, alderdiekin harremanetan jartzea errazten duen edozein bideren bitartez izan daiteke (Ferro Veiga, 2020).

Bitartekariak alderdi biei egindako lehenengo dei horretan bere burua aurkeztuko du eta prozesuaren inguruan hitz egiteko proposamena egingo du, epaitegitik bitartekaritzari, honen abantailei eta borondateari buruzko informazio-gutuna jaso duten galdetuz eta banakako elkarrizketa bat izateko gonbidapena luzatuz (onartuz gero, data eta ordua zehaztuko dira). Oro har, bitartekaria legezko ordezkariarekin ere harremanetan jartzen da, prozesuan mesfidantzarik egon ez dadin (Ferro Veiga, 2020).

Alderdi akusatuarekin hasten da beti, izan ere honek bitartekaritzan parte hartu nahi ez badu, biktima elkarrizketara alferrik joatea ekidingo da. Hau da, etorkizuneko desadostasunak edo biktimaren espektatiba faltsuak ekiditeko asmoz, akusatuak bere partehartzea konfirmatu arte ez da biktimarekin kontaktatzen. Are gehiago, biktimarekin

harremanetan jartzeko deia lehen fase honen azken unerako uzten da beti; lehen kontaktu-dei horretan, akusatua, prozesuan parte hartzearen alde agertu arren, banakako informazio-saiora joango ez balitz, biktimaren gain itxaropenak sortuko bailirateke, eta horrek are gehiago nahastuko luke, baldin eta gero bitartekaritzari ekiten ez bazaio (Ferro Veiga, 2020).

Alderdi bakoitzarekin informazioa emateko saio bat egiten da, non saioaren inguruko baimen informatu bat sinatzen den. Bitartekaritzan parte hartzeko erabakia banakakoa da beti, hots, alderdiek laguntza juridikoa jaso dezakete, eta nahiz eta hauek bitartekaritza egitearen aurka agertu, haien defendatuekin hitz egitea gomendatzen zaie, haiek baitira azkenean erabakia hartu behar dutenak (Ferro Veiga, 2020).

B. *Harrera-fasea*

Banakako lehen elkarrizketaren prestakuntza

Banakako lehen elkarrizketarako, alderdiak epaitegian zitzatu daitezke. Kasu horretan, egoitza juridikoak prozeduraren beharrezko seriotasuna ondorioztaraziko dio akusatuari, eta prozesu ordenatua, arautua eta ez-arbitrarioa izango delako segurtasuna emango dio biktimari. Bitartekaritza-taldearen erakundean ere zitzatu daitezke alderdiak, hauek prozesu judizialaren eta bitartekaritza prozeduraren arteko bereizketa errazago egitea eraginez. Eredu mistoak egoitza biak erabiltzen ditu saio jakin batzuetarako. Nolanahi ere, bitartekariak alderdiekiko telefono bidezko elkarrizketetan atzematen dituen inguruabarren araberakoa izango da, baita gelak erabiltzeko prestasunaren araberakoa ere (Ferro Veiga, 2020).

Erabilitako gela erabakigarria da bitartekaritzaren garapenerako; erabilerarako baldintzak egokiak izan behar dira, izan ere bertan emozio eta sentimendu ugari adierazten dira eta horrek giza egoera konplexuak adierazteko baldintza egokiak izatea eskatzen du (Ferro Veiga, 2020).

Lehen saioa

Senideen eta legezko ordezkarien presentziak bitartekaritza-saioaren garapena nahas dezake, eta, horregatik, alderdiei prozesuaren alderdi juridikoen berri eman ondoren, joateko gonbidapena egiten zaie, saioa egitatean zuzenean inplikaturako alderdien eta bitartekariaren artean egin dadin. Salbuespen bat egon daiteke; izan ere, bitartekaritza-taldeak biktimak, bitartekaritza-prozesua errazteko, senide, adiskide edo norbaiten baten laguntza behar duela uste badu, saioan egotea ahalbidetuko da (Ferro Veiga, 2020).

Banakako lehen elkarrizketan, bitartekaria alderdiei (bakoitzari bere aldetik) babes sentimendua eragiten saiatuko da, teknika ezberdinen bitartez hurbiltasuna, konfiantza eta segurtasuna erakutsiz. Horrez gain, prozedura azalduko die alderdiei, honen faseen, abantailen, betebeharren, arauen eta abarren inguruko informazioa modu argi eta ulerkorrean emanaz eta hauek ulertu dutela bermatuz. Hori horrela, bitartekariak baimen informatuaren dokumentua emango die sinatzeko; dokumentu hori bukaerako azken-txostenaren parte izango da (Ferro Veiga, 2020).

Behin aurreko guztia beteta, bitartekaritza-saioari hasiera emango zaio, non alderdi bakoitzak gertakarien inguruan duen pertzepzioa azalduko duen. Lehen elkarrizketa honetan ez da beharrezkoa xehetasunetan sartzea, garrantzitsuagoa baita bitartekariak prozeduran beharrezkoak diren entzutea, enpatia eta komunikazioa agertzea (Ferro Veiga, 2020).

Posiblea da narrazioaren datuak hartzea, baina gehiegi hartzea negatiboa izan daiteke hitz egiten ari den pertsonarentzat, soilik akta betetzeko entzuten zaionaren sentsazioa eragin baitezake berarengan. Zenbait datu prozedurarako baliagarriak izan daitezkeen arren, lehen saio honetan modu naturalean irteten ez badira, ez da informazio hori indarrez lortu behar (Ferro Veiga, 2020).

Momentu oro biktimak lehentasuna duela jakin arren, ezin da akordioaren bitartez bi alderdiek irabazteko helburua baztertu. Alderdi akusatuarentzat prozeduran parte hartzeak erantzukizunak hartzeko bidean aurrerapauso bat ematea dakar, nahiz eta bitartekaritza prozedura bukatu eta akordioa lortzen ez den (Ferro Veiga, 2020).

C. Elkarrizketa-topaketaren fasea

Fase honetan lehen aldiz aurkitzen dira biktima eta arau-hauslea eta, horregatik, egoera oso kontrolatuta egon beharko da. Horretarako bitartekariak banakako elkarrizketen aurretiko datuak, alderdien berriazko eta zalantzarik gabeko adostasuna eta bitartekaritzaren bideragarritasunari buruzko erabaki teknikoa izan beharko ditu. Gainera, alderdiei bitartekaritza-prozeduraren ezaugarri, abantaila, borondate eta betebeharrak birgogorarazi beharko dizkie (Ferro Veiga, 2020).

Saioan alderdi biak elkartuko badira, beharrezkoa da hauek beren esanbidezko adostasuna ematea. Alderdiak elkartuta beren ikuspuntuak azaldu ondoren akordio batera heltzea lortzen badute, bitartekaritzak bere azken helburua lortuko du (zuzeneko bitartekaritza). Hala ere, gerta daiteke alderdiek elkartu nahi ez izatea, baina horrek ez du esan nahi bitartekaritza egin ezin denik, ezta akordio batera iritsi ezin direnik (zeharkako bitartekaritza) (Ferro Veiga, 2020).

D. Akordio-fasea

Elkarrizketarako topaketa saioen ondoren ez bada akordioa lortzen, lantalde teknikoak prozeduraren emaitzaren berri eman beharko dio Ministerio Fiskalari, bitartekaritzarekin erlazionatutako beste informazio guztia, konfidentzialtasun printzipioaren ondorioz, babestuta geratuz. Kasu hauetan, akordioa ez lortzea adingabearen borondatearekin zerikusirik ez duen arrazoiengatik izan bada eta honek prozedura osoan zehar jarrera aktiboa eta konponketarako intentziora erakutsi baditu, lantalde teknikoak AEPLoren 27.4 artikuluan xedatutako aukera aplikatu dezake, zeinak, fiskalak onartuz gero, akordioa betetzeak dakartzan ondorio prozesal berdinak ekarriko dituen. Horrez gain, 1774/2004 Errege Dekretuaren 5.1.f artikulua araberak, kasu horietan lantalde teknikoak jarduerak giza-hezitzailea egiteko proposamena luza dezake (Aranda Jurado, 2021).

Hala ere, orokorrean, bitartekaritza negatiboak fiskalak espedientearen ez lortzea eta jarduerak adingabearen Epaileari igortzea ekarriko du, honek entzute faseari hasiera eman diezaion (AEPLoren 19.5 artikulua) (Aranda Jurado, 2021).

Aldiz, aurreko fasea modu arrakastatsuan egiten denean, akordioa lortuko da, zeinak adiskidetze edo konpontze forma izango duen; akordioa alderdiek eta bitartekariak sinatu

beharreko aktan agertu beharko da, ondoren, lantalde teknikoak fiskalari bidaltzeko (Aranda Jurado, 2021).

Adiskidetze akordioa lortzen den kasuetan eta topaketa pertsonala ematen denetan, normalean honek jarduera gehigarri eskatzen ez duenez, momentuan bertan gertatuko da, bitartekaritza prozedura bukatutzat emanez (Aranda Jurado, 2021).

Akordioa konponketa denean, prozesu penalaren bukaera adingabeak bete beharreko jarduera bete arte esekita geratuko da, betearazpenaren ardura lantalde teknikoarena izanik. Akordioa betetzen ez bada, behin fiskala jakinaren gainean jarrita, esan bezala, prozesu penalarekin jarraituko da, ez-betetzea adingabearekin zerikusirik ez duen arrazoiengatik gertatu denean salbu (Aranda Jurado, 2021).

E. Akordioen jarraipen-fasea

Akordioen jarraipena egitearen helburua, alde batetik, hauen betetze-maila ezagutzea da eta, bestetik, arrazoi ezberdinengatik, ezarritako epeetan, berregokitzeko aukera izatea. Bitartekaritza-taldeak egin dezake jarraipena; hori horrela, bitartekariak hartuko du jarraipena egiteko ardura eta kontrol-deiak egingo dizkie alderdiei, aldizkakotasun zehatzarekin. Halaber, epaitegiak lantalde teknikoari betetze-maila baloratzeko beharrezko txostenak eskatu ahalko dizkio (Ferro Veiga, 2020).

3.4.3. Akordioa eta exekuzioa

Akordioa da, ondorio juridiko-prozesalei begira, bitartekaritzaren zati garrantzitsuena; izan ere, berau lortzen ez bada edo, behin lortuta, betetzen ez bada, bitartekaritzak ez ditu gatazkaren soluzio estra-judizialaren ondorioak izango, prozedura bukatutzat emanez (Aranda Jurado, 2021).

Horrela, akordioa betetzen denean, neurriaz bestelako ondorio juridiko bihurtzen da, gertakarien egileak modu arduratsuan bere gain hartuz, biktimaren interes legitimoak konponduz, birgizarteratzerako eta bake sozialerako bidea hasiz (Aranda Jurado, 2021).

Hala ere, akordioak ondorio horiek eduki ditzan, Adingabeen Epailearen onarpena izan beharko du, eta hark, bitartekaritzaren emaitza eta fiskalak jarduketetan igorritako

akordioa betetzen den ala ez ebaluatuta, largespen-autoa emango du eta jarduketak artxibatuko ditu (AEPLoren 19.4 artikulua). Akordioak “aldeztatik eraturako deklarazio” izaerarik ez duenez, epailearen berrespena beharrezkoa da (Aranda Jurado, 2021).

Formari dagokionez, idatziz eta modu argian (betearazpena zaildu dezaketen interpretazioak egiteko aukera ekidinez) egin behar da, eta akordioa idazten den akta bitartekariak eta alderdiek sinatu beharko dute (Aranda Jurado, 2021).

Edukiari begira, hiru nahitaezko baldintza bete beharko ditu: batetik, alderdien borondatez lortu beharko da; bestetik, akordioak arrazoizko betebeharrak izan behar du eta ezingo da AEPLoren 7. artikuluan araututako neurrietako bat izan; eta, azkenik, proportzionaltasun printzipioa errespetatu beharko du. Horrez gain, arau-haustetik eratorritako erantzukizun zibilaren ezarpena ere akordioan sar daiteke, biktimak jarduera zibilerako prozesu penala jarraitzea saihestuz, eta alderdientzat eta Justizia Administrazioarentzat kostu gehigarriak ekidinez (Aranda Jurado, 2021).

Erregulazioak ez du akordioaren betearazpenaren jarraipena nola egin behar den, ezta nork egin behar duen esaten, baina praktikan lantalde teknikoak egiten du. Honek, akordioa betetzen ez den kasuetan, ez-betetzearen berri emango dio Adingabearen Epaileari. Horrez gain, bat-bateko egoeren aurrean akordioa egokitzeko edo aldatzeko aukera ere ez dago erregulatuta (Aranda Jurado, 2021). Aranda Juradoren (2021) arabera, erregulazio falta horretatik sor daitezkeen arazoak akordioan bertan bere aplikazioaren, jarraipenaren eta exekuzioan sor daitezkeen desadostasunen inguruko irizpide argiak txertatuz konpon daitezke.

4. ADINGABEEN BITARTEKARITZA PENALAREN ERREALITATEA ESPAINIA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Behin marko teorikoa aztertuta, komenigarria litzateke Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) errealitatea ezagutzeko. Espainiari dagokionez, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Memoriako (2021) datuen arabera, 2021ean 6.609 eginbide artxibatu ziren espedientea hasi aurretik (%9,78). Sail bakoitzean ezberdintasunak dauden arren, beharrezko joera orokortua ikus daiteke; izan ere, 2014an bataz bestekoa %11ren barruan

zegoen, 2019an %10,49ra jaitsiz, 2020an %9,89ra eta 2021ean %9,78ra (Fiscal General del Estado, 2021).

Adiskidetze edo konpontzeagatik (AEPLOren 19. artikulua) edo talde-teknikoak espedientearekin ez jarraitzea komenigarri ikusteagatik (AEPLO 27.4 artikulua) 5.604 espediente artxibatu ziren. Urte honetako ehunekoak (%21,64) aurreko lau urteetakoak gainditzen ditu, baina 2016 (%23,39), 2015 (%24,25) eta aurreko zazpi urteetakoak (%22-26) azpitik geratzen da (Fiscal General del Estado, 2021).

5.604 espediente horietatik 4.624 izan ziren AEPLOren 19. artikuluari jarraituz artxibatu zirenak (%17,85). Portzentaje horrek 2019 eta 2020koak (%14,22 eta %14,72, hurrenez hurren) hobetzen ditu, aurreko zazpi urteetako emaitza onenen artean kokatuz (%15-18). Esan daiteke berri ona dela, judizioz-kanpoko soluzioen gorakada suposatzen baitu, batez ere, pandemiaren baldintza dela eta. Probintzien artean ezberdintasunak badaude ere, orokorrean gorako joera dute soluzio hauek, batik bat, pandemia egoeraren ondoren zeharkako konpontzea eta bitartekaritza egiteko aukeraren itzuleraren ondorioz (Fiscal General del Estado, 2021).

AEPLOren 27.4 artikulua babesean artxibatutako espedientei dagokienez, 2021ean 980 espediente soilik artxibatu ziren, %1,45, aurreko bi urteetako beheanzko joerari jarraituz (2020ko %3,89ri eta 2019ko %3,45i). Beheanzko joera hau 2012an hasi zen 4/2013 Irizpenean artikulua horren arabera largespena eskatzeko zehaztutako irizpide murriztaileak aplikatzearen ondorioz (Fiscal General del Estado, 2021).

4.1. Adingabeen bitartekaritza penala EAEn

EAEko errealitatea ezagutzeko Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren “*Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren inguruko V. Plana (2020-2024)*” erabiliko dugu.

Nahiz eta zentzu hertsian neurri bat ez izan, bitartekaritza, adiskidetze eta konpontze prozedurak EAEko gazte justiziaren zati garrantzitsu bat dira. Hauek Justizia Sailburuordetzaren berezko pertsonalak eramaten ditu aurrera, Talde Psikosozial Judiziala osatzen duten profesionalek, konkretuki (IVAC-KREI, 2021).

Bitartekaritza prozedurak	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
Emaidza positiboa	221	333	270	322	287	1.433 (%79)
Emaidza negatiboa	42	51	85	94	107	379 (%21)
GUZTIRA	263	384	355	416	394	1.812 (%100)

Taula 1. Gazte Justiziako bitartekaritzari buruzko datu orokorrak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Taula horretan ikus daitekeenez, 2014-2018 urte bitartean egindako bitartekaritzen %79k emaitza positiboa izan zuen, zehaztutako helburuak lortuz. Gainontzeko %21ek, aldiz, ez zituen helburu horiek lortu eta, beraz, prozesu penalarekin jarraitu zen (IVAC-KREI, 2021).

Neurri irmoak / Bitartekaritza	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
Neurri irmoak	753 (%74)	854 (%69)	729 (%67)	764 (%65)	898 (%69)	3.998 (%69)
Bitartekaritzak	263 (%26)	384 (%31)	355 (%33)	416 (%35)	394 (%31)	1.812 (%31)
GUZTIRA	1.016 (%100)	1.238 (%100)	1.084 (%100)	1.180 (%100)	1.292 (%100)	5.810 (%100)

Taula 2. Neurri irmoak eta bitartekaritzak (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Neurri irmoei eta bitartekaritzei erreparatu, egoera nahiko orekatua izan zela ikus daiteke. Hala ere, azken urteetan bitartekaritzaren gorakada azpimarratzekoa da; 2014an neurriak %74 ziren eta bitartekaritzak %26; 2018an, aldiz, bitartekaritzen ehunekoa %31 izatera iritsi zen. Orokorrean, 2014-2018 urte bitartean bitartekaritza prozedurak %31 izan ziren (V. Plan de Justicia Juvenil en la C.A.P.V. 2020-2024).

Adina	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA	
14 urte	48	32	18	32	11	141	538 (%30)
15 urte	45	88	71	110	83	397	
16 urte	81	95	101	118	90	485	1.265 (%70)
17 urte	77	122	83	72	98	452	
> 18 urte edo gehiago	3	47	82	84	112	328	
GUZTIRA	254	384	355	416	394	1.803 (%100)	

Taula 3. Bitartekaritza prozedurak adinaren arabera banatuta (2014-2018). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Justizia Zuzendaritza.

Aztertutako epean bitartekaritza egin duten adingabeen adinari dagokionez, 16 urte edo gehiagoko pertsonen taldea %70 izan zen (IVAC-KREI, 2021).

Urtero aztertzen diren aldagaiak lau arlotan sailkatzen dira: adingabe arau-hauslea, biktima, delitu-egitate eta bitartekaritza-prozesua (IVAC-KREI, 2021).

- 2016tik adingabe arau-hauslearen profila sakonago aztertzeko aldagai berriak txertatzea gomendatu izan da. Laburki, gehienetan EAEn jaiotako gizonezkoa izaten da, bere jatorrizko familiarekin bizi dena, DBH ikasten ari dena eta bere lehen delitu-portaera dena. Gainera, konponketa-ekintza bakarra egiten du, normalean adiskidetzea, gutun/idazki bat eta/edo konpontze ekonomiko bat izaten dena (IVAC-KREI, 2021).
- Biktimak ere, normalean, adingabeak izaten dira (IVAC-KREI, 2021).
- Delitu-egintzak ohikoenak hauek dira: eraso/lesioak, ebasketak, kalteak eta irainak/mehatxuak. Gutxi gorabehera, bitartekaritzen erdiak aurrez aurreko topaketarik gabe egiten dira (askotan, biktimak hala nahi duelako). Aurrez aurreko topaketa dagoen kasuetan, konpontze-jarduera nagusia adiskidetzea izan da, eta ondoren, konpontze ekonomikoa. Biktimaren borondatez topaketarik ez dagoenetan, konpontze-jarduera ohikoenak gutun edo idazkiak izan dira, eta ondoren, konpontze ekonomikoak. Azkenik, beste arrazoi batzuegatik topaketarik egon ez den kasuetan, batez ere gizarte- eta hezkuntza-jarduerak egin dira, eta, ondoren, gutunak edo idazkiak (IVAC-KREI, 2021).

- Hiru probintzietako bitartekaritza prozeduren analisia ere egiten da, aldagai batzuetan desberdintasunak daudela somatuz, hala nola, bitartekaritza egiten den bitartean aurrera eramandako prozesuan, zuzenean erasandako alderdien aurrez aurreko topaketetan, arau-hausleen hezkuntza-egoeran, delitu-portaeren tipologia, eta abarretan (IVAC-KREI, 2021).

5. ONDORIOAK

Adingabeen Zigor Zuzenbidea eta bitartekaritza penalaren marko teorikoa eta Espainia eta EAEko errealitatea aztertu ondoren, gure ustetan, hainbat ondorio atera daitezke:

1.- Gaur egungo adingabeen Zigor Zuzenbidea bi korrante argik gidatzen dute: batetik, AEPLoren erreformek jarraitzen dutena eta, neurri handi batean, komunikabideek eragindako korrante zigortzaileak eta, bestetik, nazioarte- eta Europa-mailako erakunde guztiek defendatzen eta eskatzen duten justizia leheneratzailearen aldeko korrontea.

2.- Bi korrante horien oinarrian biktimek egindako eskakizunak daude. Eskakizun horiek, batzuetan, positiboak izan daitezke, hala nola prozesu osoan zehar biktimei arreta ematearen premia eta justizia leheneratzailearen formulen erabileraren sustapena. Beste batzuetan aldiz, joera guztiz zigortzaileak diren eskaerak, zeinak, izan ditzaketen ondorioengatik, arriskutsuak diren.

3.- Ikuspegi zigortzaileari jarraikiz, doktrinaren zati batek bitartekaritzak Zigor Zuzenbidearen helburu eta printzipioekin duen bateragarritasuna kolokan jartzen du, baina ikuspuntu horri aurre egin diogu gure lanean, eta bitartekaritza bateragarria dela frogatu dugu.

4.- Hori bai, aipatzen den Zigor Zuzenbidea pribatizatzeko arriskuari dagokionez, justizia leheneratzailearen metodoek, nolabait, auto-tutoretzako adierazpenak ekar ditzaketela jakinda, ezinbestekoa da bitartekaritza prozesu penalaren esparruan eta bitartekari inpartzial baten gidaritzapean egitea. Are gehiago Espainian, non, legearen arabera, prozedura martxan jartzearen ardura, orohar, Ministerio Fiskalarena denean eta alderdien arteko elkarrizketan berdintasuna bermatzea bitartekariaren lana den. Laburbilduz, abusuak eta justizia pribatura bueltatzea ekiditeko beharrezkoa da bitartekaritza

zuhurtziaz erabiltzea, horrela, Zigor Zuzenbidearen printzipioak, eraginkortasuna eta oinarritzko bermeak albo batera utzi gabe gauzatuko baitira.

5.- Edonola ere, gure ustetan eta aztertu dugunagatik, enpirikoki frogatuta dago helburu horiek lortzeko lagungarria dela bitartekaritza penala. Alde batetik, prebentzio bereziari erreparatuz, eragin positiboa du; izan ere, delituan berrerortze kasuak murriztu egiten dituelako eta heziketa eta birgizarteratzea modu errazagoan lortzen direlako.

6.- Beti ere, adingabeak bitartekaritza parte hartzea onartu eta egindakoaren inguruko erantzukizuna bere gain hartzen duenean. Zentzu horretan, eragindako kaltearen kontzientzia hartuz eta, biktimarekin elkarriketa izan ondoren, honi barkamena eskatuz edota konpontze-jardueraren bat eginez.

7.- Erantzukizuna bere gain hartze horrek, beste zigor neurri batzuek baino onura gehiago ekarriko dizkio adingabeari eta hezitzaileagoa izango da beretzat.

8.- Gainera, bitartekaritzarekin justizia leheneratzailearekin prebentzio orokorra ere egiten da, positiboa bereziki, zeinaren bitartez gizartearen konfiantza bilatzen den. Hau da, bitartekaritzaren bitartez, biktima entzuna sentitzen da eta bere behar eta eskakizunak aseta ikusten ditu; ondorioz, ez da neurri tradizionalekin bezala “ahaztua” sentitzen eta sisteman konfiantza handiagoa izatea lortzen da.

9.- Bitartekaritza eta errugabetasun printzipioaren inguruan ere jardun beharra dago, eztabaida sortzen duelako. Bitartekaritza aurrera eramateko adingabeak erantzukizuna bere gain hartu behar duen heinean, prozeduran akordio batera heltzen denean, adingabearen aurka erabil daitekeela uste badaiteke ere, ez da horrela. Aztertu dugun moduan, konfidentzialtasun printzipioa dela eta, bitartekariak ezingo dio Ministerio Fiskalari izandako elkarrizketetan adierazitako ezer esan eta, beraz, ez da esandako ezer bere aurka erabiliko, errugabetasun presuntzioaren printzipioa errespetatuz.

10.- Zigor Zuzenbidearen esku-hartze minimoaren printzipioari erreparatuz, honekin ere guztiz bateragarria da bitartekaritza, izan ere berau aukeratzean ZZ soilik akordio batera heltzen ez den kasuetan edo betetzen ez denetan erabiliko da, azken errekurtsotzat utziz. Eta, aldi berean, zigor prozesuaren helburuak lortzeko eraginkorragoa suertatzen da (proporzionaltasun printzipioa errespetatuz), bereziki, adingabearen interes gorena

lortzeari dagokionez. Gainera, eremu honetan, bereziki aipatu behar dugu birgizarteratze printzipioa, bitartekaritzarekin, zigorraren ezarpena edo exekuzioa ekiditeko aukera dagoen heinean, birgizarteratzearen aldeko apustu argia egiten delako, edo, behintzat, zenbait neurriren aplikazioak ekar dezakeen ez-gizarteratzearen aurkako apustua. Honek garrantzia handia du, bereziki, adingabeen kasuan, ez baita ahaztu behar adin goiztiarrean egindako heziketa eta birgizarteratzeak, etorkizuneko delituzko portaerak eta jarrera antisozialak ekidin ditzakeela.

11.- Behin bitartekaritzak Zigor Zuzenbidearekin eta bere printzipioekin duen bateragarritasuna nabarmenduta, legedian egin beharreko eraldaketak aipatu nahi ditugu. Izan ere, bitartekaritzaren aplikazioaren alde egiten den arren, gehiago garatu eta hedatu egin beharko bailitzateke. Lanean ikusi dugun bezala, Espainia mailan, AEPLoren 19 eta 27.4 artikulua aplikatzeagatik largetsitako espediente kopuruak azken bi urteetan gorakada eginagatik, ezberdintasun nabarmenak daude lurraldeen artean; diferentzia hau ekiditeko asmoz, garrantzitsua da legean aldaketaren bat egitea, orokorrean bitartekaritzaren erabilera sustatuz. Interesgarria litzateke bitartekaritza aktibatzeke dauden baldintza objektiboak murriztea (hala nola, delitu mota guztietara zabaltzea) edota biktimen prozesu penalean parte hartzeko duten eskubidea murriztea (akusazio partikularrak bitartekaritzara jotzea eragozteko duen aukera ezabatuz).

12.- Bitartekaritzaren praktika egokia gauzatzeko, erreforma legala egiteaz gain, baliabide material eta pertsonal nahikoez hornitu behar da berau egiteaz arduratuko den erakunde publikoa. Parte hartuko duen pertsonala lan bolumenak eskatzen duen kopurura egokituta egon behar da, hau da, lan kargak eskatzen duen bitartekari kopurua egon beharko da lanean; horrez gain, kualifikazio egokia izatea bermatu behar da lan horretan diharduen pertsona orok. Baliabide materialei dagokienez, bitartekaritza arduratuko den talde teknikoak, bere lana egokitasunez egin ahal izateko, espazio egokiak behar ditu; izan ere, espazio horien kokaleku eta antolamenduak alderdiak elkartzea eta hurbiltzea sustatzeak, bitartekaritza erraztea eragiten baitu.

13.- Garrantzitsua da bitartekaritzaren errealitatea benetan ezagutzeko gaiaren inguruko estatistika homogeneoak eskuragarri izatea. Ondorioz, baliabide informatikoz eta funtzio hau beteko duen profesionalen hornitu behar da justizia administrazioa.

14.- Ezinbestekoa suertatzen da, bitartekaritzan lan egingo duen pertsonalaz gain, adingabeen prozesu osoan zehar parte hartuko duten profesional guztien etengabeko espezializazioa.

15.- Amaitzeko, interesgarria litzateke justizia leheneratzailearen eta, bereziki, bitartekaritzaren erabilera, adingabeen Zigor Zuzenbide osora ez ezik, helduenera ere hedatzea, gure ustetan, lehenengoan dituen onurak ikusita, bigarrenean ere erabiltzea aberasgarria izango bailitzateke, bai arau-hausleentzat, baita gizarte osoarentzat ere.

6. BIBLIOGRAFIA

- Almirall Serra, A., García Cotto, M., & Jódar Martínez, F. (2011). La mediación penal juvenil y comunitaria: una alianza necesaria. *Mediaciones Sociales*, 165-185.
- Álvarez Ramos, F. (2008). Mediación penal juvenil y otras soluciones extrajudiciales. *International e-journal of Criminal Sciences*.
- Aranda Jurado, M. (2021). *La mediación penal juvenil en España*. Valencia : Tirant lo Blanch.
- Armenta Deu, T. (2018). Justicia restaurativa, mediación penal y víctima: vinculación europea y análisis crítico. *Revista General de Derecho Europeo*.
- Aucejo Navarro, J. M. (2015). *TESIS sobre: Aproximación Ciminológica a la Delincuencia Juvenil y al Sistema de Justicia Juvenil en la Provincia de Valencia*. Valencia: Universitat de València.
- Barona Vilar, S. (2011). *Mediación penal Fundamento, fines y régimen jurídico*. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Belloso Martín, N. (2010). Anotaciones sobre alternativas al sistema punitivo: mediación penal. *Revista Eletrônica de Direito Processual*, 146-186.
- Cámara Arroyo, S. (2011). Justicia juvenil restaurativa: marco internacional y su desarrollo en América Latina. *Revista de Justicia Restaurativa*, 8-52.
- Cámara Arroyo, S. (2016). Antecedentes históricos del tratamiento penal. *Revista de Historia de las Prisiones n°2*, 16-92.
- CESUP, C. (2014). *Manual para la Formación y Capacitación en Mediación Comunitaria*.
- Colás Turégano, A. (2015). Hacia una humanización de la justicia penal: la mediación en justicia juvenil española. Principios y ámbito aplicativo en la LO 5/2000,

reguladora de la Responsabilidad Penal de los Menores. *Revista boliviana de derecho* n°20, 142-167.

Corbalán Olivert, M., & Moreno Gálvez, M. (2013). *Reincidencia y mediación en menores*. Barcelona: Bosch editor.

Coy, E., & Torrente, G. (1997). Intervención con menores infractores: su evolución en España. *Anales de psicología*, 39-49.

Cruz Márquez, B. (2005). La Mediación en la Ley Orgánica 5/2000, reguladora de la Responsabilidad Penal de los Menores. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminológica*, 1-34.

Cruz Parra, J. (2013). *TESIS DOCTORAL sobre: La mediación penal. Problemas que presenta su implantación en el proceso español y sus posibles soluciones*. Granada.

De Armas Hernández, M. (2003). La mediación en la resolución de conflictos. *educar* 32, 125-136.

De la Cuesta Arzamendi, J. L., & Blanco Cordero, I. (2010). *Menores Infractores y Sistema Penal*. Donostia-San Sebastián: Instituto Vasco de Criminología.

Departament de Justícia. (s.f.). *gencat*. Obtenido de Generalitat de Catalunya: https://justicia.gencat.cat/ca/ambits/mediacio/mediacio_dreprivat/la_mediacio/caracteristiques/

Düinkel, F., & Castro Morales, Á. (2012). Reglas europeas para infractores menores de edad sometidos a sanciones o medidas. *Revista Digital de la Maestría en Ciencias Penales de la Universidad de Costa Rica*, 93-122.

Ferreirós Marcos, C. E. (2011). *La mediación en el derecho penal de menores*. Madrid: Dykinson.

Ferro Veiga, J. M. (2020). *Emprendimiento en pericia judicial y extrajudicial*. José Manuel Ferro Veiga.

- Fiscal General del Estado. (2021). *Memoria de la Fiscalía General del Estado*. Madrid: Fiscalía General del Estado. Ministerio de Justicia.
- García Pérez, O. (2019). *Las medidas y su ejecución en el sistema de justicia penal juvenil*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- García Rodríguez, M. J. (2020). El nuevo estatuto jurídico de las víctimas del delito ante el sistema de justicia penal juvenil. *Revista General de Derecho Penal*.
- Garmendia Loyarte, E. (2019). Mediación penal juvenil. *Revista Científica DOCRIM*, 1-31.
- Iungman, S. (1996). *La mediación escolar*. Buenos Aires: LUGAR EDITORIAL.
- IVAC-KREI. (2021). *V. Plan de Justicia Juvenil en la C.A.P.V. 2020-2024*. Eusko Jaurlaritzza. Berdintasun Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
- Jiménez Arroyo, S. (2017). Garantías procesales del menor infractor en el marco de la violencia filio parental. Aportaciones desde la Directiva 2016/800/UE. *Revista de Estudios Europeos*, 7-19.
- Jiménez Díaz, M. J. (2015). Algunas reflexiones sobre la responsabilidad penal de los menores. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 1-36.
- Landrove Díaz, G. (2007). *Introducción al Derecho Penal de Menores (2ª ed.)*. Valencia : Tirant lo Blanch.
- Martín Ostos, J. (1994). *Jurisdicción de menores*. Barcelona: Jose Maria Bosch Editors S.A.
- Martínez Taboas, T. (2012). Origen y evolución de la Justicia Penal de Menores en España. En E. González Pillado, *Mediación con menores infractores en España y en los países de su entorno* (págs. 36-52). Valencia: Tirant lo Blanch.
- Mediación. (2017). *La Mediación*. Obtenido de Mediación: <https://mediacion.org/index.php/la-mediacion/>

- Montero Hernanz, T., & de Vicente Martínez, R. (2016). *Vademecum de justicia juvenil*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- Ocáriz Passevante, E. (2013). Evaluación de la mediación penal en Justicia Juvenil e impacto en la reincidencia . *International e-journal of criminal sciences*.
- Ornosa Fernández, M. R. (2003). *Comentarios a la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, reguladora de la responsabilidad penal de los menores*. Barcelona: Bosch.
- Pérez Vaquero, C. (1 de julio de 2014). *La justicia juvenil en el derecho europeo*. Obtenido de Derecho y Cambio Social: https://www.derechocambiosocial.com/revista037/LA_JUSTICIA_JUVENIL_EN_EL_DERECHO_EUROPEO.pdf
- Pérez Vaquero, C. (1 de abril de 2014). *La justicia juvenil en el derecho internacional*. Obtenido de Derecho y Cambio Social: https://www.derechocambiosocial.com/revista036/LA_JUSTICIA_JUVENIL_EN_EL_DERECHO_INTERNACIONAL.pdf
- Piaget, J. (1971). *El criterio moral del niño, trad. de N. Vidal*. Barcelona: Ediciones Martínez Roca.
- Rodríguez Pérez, J. P. (2001). Justicia de menores en España: análisis histórico-jurídico. *Anales de la Facultad de Derecho*, 419-440.
- Salazar Villarroel, D., & Vinet Reichhardt, E. (2011). Mediación familiar y violencia de pareja. *Revista de Derecho*, 9-30.
- Sánchez García de Paz, I. (1998). *Minoría de edad penal y derecho penal juvenil*. Granada: Comares.
- Sánchez García de Paz, I. (2008). La reforma de la Ley del Menor por la LO 8/2006. *Revista Jurídica de Castilla y León*, 13-47.

Sánchez Vázquez, V., & Guijarro Granados, T. (2002). Apuntes para una historia de las instituciones de menores en España. *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría*, 121-138.

Sanz Hermida, Á. M. (2002). *El nuevo proceso penal del menor*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

Unión Europea. (8 de octubre de 2020). *European e-justice*. Obtenido de Principios y etapas: https://e-justice.europa.eu/content_key_principles_and_stages_of_mediation-383-es.do?init=true

Universitat Oberta de Catalunya. (s.f.). *Mediación penal*. Obtenido de Universitat Oberta de Catalunya: <https://biblioteca.uoc.edu/es/biblioguias/biblioguia/Mediacion/>